

DATORRENA

Etxebizitza krisia geroari begirako
gakoa bilakatu da **MAITE UBIRIA BEAUMONT** > 3

AITOR MONTES, medikua: «Inork ez ditu
bere hizkuntza eskubideak borrokatuko
heriotza aurrez aurre daukanean» > 22

2022ko irailaren 24a | XVI. urtea • 792. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ZERO KILOMETROKO URA

TXORROTA ZABALDU ETA URA EDUKITZERA OHITUTA GAUDE. HORREGATIK SEGURUEN EZ
DUGU ASKO HAUSNARTZEN URAREN KUDEAKETAREN INGURUAN. TOKI BATZUETAN UR
ESKASIA ERREALITATE BIHURTU DEN HONETAN, URAREN KUDEAKETA LEHEN LERROAN
JARTZEN ARI DA. PRIBATIZAZIOAK EMARI INDARTSUEGIA OTE DU? > 12 Aritz LOIOLA | FOKU



Analisia: Zuhaitz adaburuetatik basoekin erresistentzia irmoan 04

Amal Txikia, Siriako haur errefuxiatuen sinbolo bilakatu den txotxongilo bidaiaria 08

Uraren gertuko kudeaketa eta urrunekoa, aurrez aurre 12

Bertsolari Txapelketa Nagusia zenbakitan: Soka tenkatuta, hitzen akrobazien zain 16

Aitor Montes, familia medikua: «Eraisketa prozesu ikaragarria bizitzen ari gara» 22

Bortz Kirol txapelketa, pilotaren aberastasuna saritzeko saiakera egingo dute Donezteben 27

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 Maite Ubiria Beaumont:

Etxebizitza krisia geroari begirako gakoa bilakatu da

10 Saioa Aginako Lamarain:

Wanderlust

11 Iñaki Altuna: Gatazkari

buruzko filmek jasotzen duten babesa

19 Miren Azkarate Badiola:

Denok egin beharreko bidaia

19 Antton Izagirre: Jainkoa

banintz

21 Joana Garmendia: Mariatxiak

eta emerituak

25 Unai Gaztelumendi

30 Arantza Irastorza Goñi:

Ehuleak ere programatzaile



{ datorrena } Maite Ubiria Beaumont

Etxebizitza krisia geroari begirako gakoa bilakatu da

A spaldiko kezka izanik ere, etxebizitzaren krisiak azkartze prozesua izan du pandemiaren testuinguruan Euskal Herrian. Zuberoak, Nafarroa Behereak eta Lapurdik osatzen duten eremuari dagokionez, hainbat berezitasun tartean direla, afera agendaren erdigunean kokatzeaz gain etorkizunerako gakoa bilakatzeko bidean da. 2017an sortu zenetik, bizitokiaren eta luraren zaintzaren arteko oreka zailari aurrez aurre heldu zion Euskal Elkargoak. Geroztik, berdin laborantza politika berrirako ardatz hartuta zein etxebizitzaren eskubidea hizpide, hainbat deliberazio garrantzitsu hartu ditu erakundeak, adostasun zabalarekin, gainera.

Eskuduntzen mugak edo erakundeetako dinamikak beraiek lerroak ez mugitzeko 'argudio' gisara hartzea ohikoa izaten da, ordea, beste hainbat euskal administrazioetan. Are, berriki hezkuntza edo kirol alorretan lorturiko oinarritzko akordio zabalak heldu aitzin, belarriak berotu zizkiguten lelo errepikakor horiekin. Gogoratu behar da, bestalde, EAJk muzin egin ziola 2015ean etxebizitza eskubidea bermatzeko xedez EH Bilduren eta PSEren arteko akordioari esker –eta UPyDren babesarekin– Legebiltzarrak onarturiko legeari.

Mahai gainean dugun erronkak, ordea, hor ere softwarea aldatzea ekar dezakete. Klima larrialdiaren eskutik espektatibak bezala aukerak guztiz murriztu daitezkeelako, denontzat. Laburbildurik, zentzu kolektiboaren galera sustatu zuten kudeatzaileek beraiek interesa izan dezakete, biziraupena jokoan delarik, arrakalak zabaltzea xede duen politika guztiz alboratu gabe azeleragailutik oina altxatzeko. *Greenwashing* edo zuriketa berdearen enegarren kapituluaren aurrean edo, alderantziz, bidea zuzentzeko hautu zentzudunen atarian gauden jakiteko aukera emango du energia berriztagarrien gainean zabaltu berri den eztabaida publiko-

ak. Pepe Mujika uruguaitar presidente ohiaren hitzak gogoan –herri txikiek haustura gehiegi ezin dituztela jasan–, abaguneak bigarren aukera garaile ateratzeko erabateko konpromisoa hartzea eskatzen digulakoan nago.

Bidasoaren ipar ertzean, lurraldearen ustiapenak agerian utzi du baldintza zehatzetan, ez beti onenetan, jokatze beharra. Gauzak horrela, ezker eta eskuinaren lubakietan jarduteko larrialdia piztu ondoren, aritzeko premia nagusitu da. Bestela ezin da ulertu, esaterako, bizitoki turistikoaren jabeen interesak defendatzen dituzten erakunde lotuneetan gertaturiko higadura. Iragan martxoaren 5ean etxebizitza turistikoaren etengabeko garapena mugatzeko arau berria onartu zuen Euskal Elkargoak. Hautetsien %95ek babestu zuten aitzindaria den konpentsazio sistema indarrean jartzea. Hau da, platafor-

Etxebizitzaren alorrean zein laborantza lurren gainean hil ala biziko norgehiagoka jokatzen den garaian, merkatuaren apostoluek ospea galdu eta erakunde sisteman bozeramaile gutxiago dituzte

men bidez –gehienetan– etxebizitza turistiko bat eskaintzen duen jabeak urte osorako bertze bizitoki bat behar du alokairuan eskaini. Sistemaren bidez 11.000 etxebizitza erreskatatzea espero du euskal erakundeak.

Beraien interesak kaltetuak zirelakoan auzitara jo zuten multijabeek, baina hainbat zuzenketa egin ondoren, finean, jupeak arauari ezarritako etenaldia bertan behera gelditzea lortu du Euskal Elkargoak. Bertze urratsa: Estatuak euskal lurraldea neurri unitate bezala onartu du alokairuen iruzurraren aurkako politikak garatzeko orduan. Mutur ezberdinetatik tiraka, lurralde mailako dinamika indarturik atera da, eta arazo larri bat etorkizuna eraikitze gako berria bilakatu da. •

A

buztuaren amaieran 560 zuhaitz inguru moztu eta bota zituzten Donostiako Marrutxipi inguruan, autobideko lotura berria eraikitzeko. Horrela, hiri barruan zegoen beste habitata natural bat desagertu da, bertako landarediko habitata natural txiki bat. Gertaera honek egiaztatu diguna argi daukagu urte batzuk daramatzagunok: gure politikariek,

Bitartean, gure hiria hormigoiz gehiagorako prestatzen ari dira, beste hainbat baso eta zuhaitz parean etzan dituen minimetroa edo abiadura handiko trena (AHT) bezalako beste proiektu batzuetarako. Beste proiektu anakroniko horretan bezala, Bolintxun eragin bera izan zuen Bilboko Supersurra eraikitzeak. Nola justifikatzen da hondamendiaren tamaina egoera honetan, klima eta ingurumen larrialdi honetan? Izan ere,

aurten bezala, tenperatura altuak, lehorteak eta suteak direla-eta, ondorioak nabariagoak eta dramatikoagoak dira. Ekosistema aberatsak izateaz gain, basoek ura biltzeko ahalmena dute, eta berotik, lehortetatik eta uholdeetatik babesten gaituzte. A zer kontraesana haiengandik libratzea edo monolaborantzak landatzea, basoen funtzioa berteko balute bezala!

Baina, gainera, esan bezala, basoak eta zuhaitzak berez

murritzten diren egoera batean gaude, kontrolatu ezin ditugun baldintzengatik (nahiz eta gure erantzukizuna diren eta arindu ditzakegun!). Amazoniako oihana zein beste batzuk eta zuhaitzak galtzea eragiten duten suteak; edo lehorteak eta, neurri handiagotan, basamortutzea. Edo, are gehiago, baso-soiltzeak ere eragiten dituen gerra: joan den martxoan, Errusiako Defentsa ministroak Ukrainako basoak bereizi gabe mozteko

{ analisia } **Martin Mantxo** aplaneta.org

Zuhaitz adaburuetatik basoekin erresistentzia irmoan

Donostiako Udalak, Gipuzkoa-ko Foru Aldundiak eta gainerako erakundeek hiri ekologikoagoei buruz eta klima larrialdiaren aurka egindako diskurtso horiek guztiak hitz hutsak dira. Erretolika. *Greenwashing* edo garbiketa berdea. Zurikeria. Errealitatera joaten garenean, bost axola zaiela egiaztatzen dugu.

Isuriak gutxitzeaz hitz egin dute, eta errepide gehiago eraikitzen dituzte, ibilgailuen zirkulazio fosilista errazteko. Karbono hustubideei buruz hitz egin dute eta geratzen zaizkigun eremu natural urriak suntsitzen dituzte, antzinako zuhaitzak, basoak, CO₂ eta berotegi efektuko gainerako gasak xurgatzen dituztenak, baina, batez ere habitatak direnak eta beren bizitzarekin planetaren bizitza sustatzen dutenak. Ez dute lotsarik.

Abuztuaren amaieran 560 zuhaitz inguru moztu zituzten Donostiako Marrutxipi inguruan, autobideko lotura berria eraikitzeko. Kasu honetan ez zen beste leku batzuetan ospetsu egin diren zuhaitzen defentsarako mugimendurik sortu.

(ez soilik leherketak eta suteak) egindako eskaeraren berri izan genuen. Jakina, egoera honetan, behar dugun azken gauza da 560 zuhaitz modu horretan galtzea; azken suteek, azken bero boladak desagerarazitakoei zuhaitz gehiago gehitzea.

Defendatu egin behar genituen. Ez dugu egin. Arrazoi askorengatik. Baina beste leku batzuetan defentsa martxan dago. Borroka klimatiko horren parte da, are gehiago: ingurumenekoa da eta kapitalismoaren aurkakoa da, soziala da, politikoa da, gizaki gisa zuhaitz horiek behar ditugulako. Planetako biztanle gisa behar ditugu. Eta ekosistema horiek behar dituzte, planetak behar ditu!

Basoak babesteko kanpamentuek 1980ko hamarkadan izan zuten gorakada, AEBetako

hego-mendebaldean, sekuoien mozketaren aurkako borrokan. Mugimendu horrek basoak kanpamentuen bidez okupatzea, zuhaitzetan esertzea eta abar planteatzen zuen. Eta Erresuma Batuarien errepide programa nazional baten aurkako mugimendua inspiratu zuen. Kanpaldiak nonahi errepikatzen ziren programatutako errepide guztietan. Etxeak eraikitzen ziren zuhaitzetan, *bender*-ak (olanadun haga-denda inpro-

Metodo horiek inspiratzen jarraitzen dute. Gaur egun, basoen defentsarako eremuak Alemanian eta Polonian biltzen dira, baina AEBetan, Austrian eta Ingalaterran ere badaude.

Deforestazioari aurre egiten Polonian

Abuztuan iritsi zitzaizkigun Poloniako berriak: 219 basoaren defentsa eremu bat hustu zutela Noran. Basoaren de-

ten zion Puszcza Borecka baso primitiboaren mozketari. Abuztuaren amaieran, gizon moztortuek kanpaldiko partaideei eraso zieten. Eraso-tzaileak pertsona bat zuhaitz batetik arrastaka eramaten saiatu ziren, zuhaitz adaburuetan kokatutako etxe bateko zintzilikarioak suntsitu zituzten eta, ondoren, ibilgailu batean joan ziren.

Eraso honek Khimki-ko (Errusia) basoan 2011n izandako mozketaren aurkako

handiena Bielorrusiako mugan migrazioa eragozteko horma bat eraikitzeak eragin du. “Europa Harresia” babes-teko megahorma horrek (bai, hormak ez zituen Trumpek bakarrik eraikitzen!) 353 milioi euroko aurrekontua du, eta Budimexek eraiki zuen, Ferrovial Españolaren subsidiario batek. Hura eraikitzeak berekin zekarren mugan zehar 200 metroko zerrenda moztea, makinentzako sarbideak, materialen eta erreminten biltegiak, eta abar. Uztailaren 1ean Budimex-Ferrovialek proiektu horren amaieraren berri eman zuen.

2017an, Poloniako Gobernuak baso mozketaren liberalizatu zuen Szyszko legearen bidez. Erreakzio gisa, *Matki Polki na wyrebie* (zuhaitz mozketaren aurkako ama poloniarak) taldeak aurka egin,

eta mozketan atera zituzten argazkiak, beren haurtxoak babesten, hondamendiaren dimentsio bat emateko.

Alemanian meatzaritzaren aurrean

Alemanian Baso Okupazio Mugimendua bere artikulu propioa izan zuen “A Planet”-en –CrimethInc-en itzulpena–. Bertan, Altdorfer Wald basoko kanpamentuen berri ematen zen; harrobi batek mehatxatzen du 2021eko otsailaren 26tik. 2020ko urrian, Flensburgeko beste zelai bat hustu zuten. Jendea zuhaitzetan eta plataformetan etxeak eraikitzen hasi zen, hotel bat eta aparkaleku bat eraikitzeke moztu behar ziren zuhaitzak salbatzeko.

Alemanian baso erresistentzia sendoena Hambache-



bisatuak) edo tunelak ere bai lur mehatxatuaren azpian, makineriaren okupazioarekin eta ekintza zuzeneko beste formula batzuekin batera. Horiei beste metodo batzuk gehitu zitzaizkien, hala nola bidoi eta tripodeetan kateatzeak, aktibistak igotzen zituztenak, orain nazioartean ere hartu direnak. Guztietan bilatzen zen enpresei eta erakundeei aurrera egiteko asmoa kentzea.

fendatzaileak urte bat baino gehiago (583 egun) bizi izan ziren baso horretan, desagertzetik defendatzeko. 219 basoak historia aberatsa du: 1945era arte ez zen zuhaitzik moztu. Orain zuhaitzen %30 moztea aurreikusten da. Baso hori Nature 2000 Bieszczady eremuan sartuta dago, baina hori ez da baso-soiltzerako oztopo.

Herrialde berean, beste kanpamentu batek aurre egi-

ekintzaileak jasan zuena gogorarazten digu. 2012an, Australian antzeko larderia taktikak erabili zituzten Tasmanian baso defendatzen zuten ekintzaileen aurka; etxeak erre zizkieten.

Poloniaren eta Bielorrusiaren arteko milaka urteko baso primitiboa altxor bat da, 800 bisonten bizilekua. Azken urteotan, mozketak ugartu egin dira, baina, zalan-tzarik gabe, inpaktu

Abuztuaren amaieran 560 zuhaitz inguru moztu eta bota zituzten Donostiako Marrutxipi inguruan, autobideko lotura berria eraikitzeke.
A PLANETA

koa da, izen bereko aire zabaleko lignito meategiari lotutako suntsiketa-
ren aurka. Kanpamentuak hamar urte bete ditu –2012ko apirilaren 14an hasi zen–. Meatzea RWErena da eta 1978tik ustiatzen da. 500 metro-
rainoko sakonera du eta 43,8 kilometro koadroko hedadura. Meatze ustiapenera bideratutako azalera, guztira, 85 kilometrokoa da. Horrek esan nahi du meatzea pixkanaka lurraldea eta komunitateak irensten ari dela.

Orain mehatxatuak Manheim eta Morschenich dira, eta Hambacheko basoa, zeinaren %90 suntsitu baitu. Hori dela eta, defentsa eremuak azalera zabal horretan lekualdatzen edo berrabia-



Haur bat Alemaniako baso batean poliziari aurre egiten. WALD STATT ASPHALT

teotan indarra hartzen joan denez eta ekintza zuzenaren metodo gehiago hartu ditue-
nez inakzio politikoaren ondorioz, HS2 Rebellion eratu zuten Extinction Rebellion bezalako taldeek bat egin dute eremu horiekin. HS2ak antzinako 44 hektarea baso suntsituko ditu: 1600. urtetik etengabe zuhaitzutako basoa, ordezkazina, beraz. Hasiera batean, proiektu horrek 83 basoren afekzioa kontabilizatzen zuen, baina benetan 108 dira. Kasu horretan hiru kanpamentu altxatu ziren, bi Buckinghamshiren eta bat Staffordshiren, baina dagoneko hustu dira.

Horietako batzuk Fulfen eta Little Lyntus (Staffordshire) izan ziren 2020ko irailean, nahiz eta proiektuak "lekualdatzea" aurreikusten zuen. Horretarako, moztuta

tzen dira. Mugimenduan bertan aldarrikatzen duten bezala, hustuketa bakoitzaren ondoren berrokupazio bat egon da.

Eremu hau *Ende Gelände* mugimendutik gertu dago. Mugimendu horrek lignito ikatzaren erabilera larrialdi klimatikoarekin lotzen du eta desobedientzia zibil masibaren alde egiten du. Komunikatuak aurrera jarraitzen du: erresistentzia Hambacheko basoan beti izan da tokiko borroka bat baino zerbait gehiago. Kontua da zapalkuntza mekanismoei aurre egitea eta kapitalismoak patriarkatuan dituen botere harremanak ikusaraztea.

Wald statt Asphalt (basoa asfaltoaren ordeztu) izeneko sarea sortu zen jatorriz Neuental eta Kassel arteko autobidearen 42,5 km-ko

trazaduraren aurkako protestak babesteko eta Dannenröder basoa zaintzeko. 2019ko urrian eraiki ziren lehen plataformak zuhaitzen adaburuetan. 2020ko azaroan hustu egin zuten, baina borrokak beste proiektu batzuen aurka jarraitu zuen. Uztail honetan hasi zen Osnabrückeko basoaren okupazioa eta defentsa, eta 2015ean, Robin Wood erakundeak protesta kanpamentu bat mantendu zuen Treburer Oberwald basoan (Offenbach), Frankfurtoko aireportuko 3. terminalaren eraikuntzaren aurka.

Atlantaren okupazioa Cop Cityren aurka

AEBetan, basoak babesteko egungo kanpamentuetako bat Atlantakoa da, urtarrilaren 18an hasi eta oraindik ja-

rraitzen duena. Weelaunee inguruko baso bat (South ibaia) mehatxatzen du Cop City (Poliziaren Hiria) espekulazio eta polizia proiektuak, baita Blackhall estudio-
etako zinemarako makroagertoki batek ere.

Nahiz eta ez izan kasu askotan zehazki basoak defendatzeko, 2010eko hamarkadaren amaieran kanpaleku asko sortu ziren, oliobideen proiektuek aurrera egin zutelako. Nahiz eta ezagunena Dakotako Standing Rock izan –DAPLren aurka–, beste batzuk ere izan ziren, hala nola Two Rivers Texasko mendebaldean Trans Pecos oliobidearen aurka (TPPL), eta izaera indigenako beste batzuk: Split Rock Sweetwater (New Jersey) Pilgrim oliobidearen aurka, eta beste bat Hego Dakotan.

Kanadan ere desobedientzia zibileko mugimendu handia dago Vancouver uharteko (British Columbia) jatorrizko basoaren mozketaren aurka, 1993tik. Urte horretan, Basoko Gerra deitu zena gertatu zen, 856 atxilotetarekin. Iaz mozketak eta horien garrak asko blokeatu zituzten. Ekainean, poliziak manifestariak erreprimitu eta azken kanpalekua hustu zuen.

Britainia Handia: autobideak eta HS2

Errepideen aurkako mugimenduaren ondoren, baso defentsako eremuak Erresuma Batuko hurrengo proiektu desarrollista handienak mehatxatutakoetara mugatu ziren: HS2 abiadura handiko trenaren (*High Speed 2*). Mugimendu klimatikoa azken ur-

dauden zuhaitzetako antziak birlandatzeko planteamendu zentzugabea egiten dute. Baina birsortzeko garai egokitik kanpo egiteaz gain, konplexutasun naturala eta ekosistemikoa alde batera utzita egiten dute. Hala eta guztiz ere, etengabe aurkeztu dute proiektu hau munduko jasangarriena dela esanez, eta Britainia Handiari klima aldaketaren aurka borrokatzen eta 2050erako zero karbono garbiko helburuak lortzen lagunduko diola.

Baina etenaldiak jarraitzen du: irailaren 5ean, Dave Buchan aske utzi zuten, 100 egunez espetxean egon ondoren, errekerimendu zibil bat ez betetzeagatik. Buchan Bluebelletako basoaren (Staffordshire) defentsan parte hartzen ari zen –HS2ren eraikinean dago–, eta bertan tu-

nelak ere egin zituzten, trenaren eraikuntza eragozteko. Uztailearen 28an Buckinghamshireko Wendover Active Resistanceko (WAR) aktibistak ere zigortu zituzten. 47 egun eman zituzten tuneletan, Erresuma Batuko historiako tunel luzeena. Zigorrak 100 eta urtebete artekoak izan ziren. Epai horiek eredutzat hartu ziren. Ebakuatutako ekintzaileetako bat Swampy (Dan Hooper) ospetsua izan zen, 28 egun lur azpian igaro ondoren. 2020an ere atxilotu zuten, zuhaitz etxe batean. 2021ean, bere 16 urteko semea ere, Rory, berarekin itxi zen Euston geltokiaren aldameneko parkearen azpiko tunel batean, 22 eguneko protestarako.

Swampy Bristolen ezagutu nuen, eta han bizi izan zen 1996an; britainiar hedabide-



Goian, bi erresistentzia ekintza. Behean, zuhaitz mozketaren aurkako ama poloniarrak.

WALD STATT ASPHALT - Tomasz WIECH

etan ospetsu egin zen handik denboraldi batera, metodo hori Fairmile-n, Devonen, A30 handitzeko saiakeretan praktikan jartzeagatik. Orduan astebete eman zuen lur azpian. Oraindik ez zegoen sare sozialik, soilik periodikoak inprimatuta, telebista kanalak eta Internet hasi berria, baina Swampy gaur egun «biral» deitzen duguna bihurtu zen.

Beste kanpamentu bat ere saiatu zen Somerseteko haritz handi bat salbatzen. Abuztuaren 2an bota zuten, A303ra sartzeko errepide bat zabaltzeko.

Denboran atzera

Basoen defentsa, jakina, oso aspaldikoa da. 1970ean, Indiako Chipko Mugimenduko emakumeek beren komuni-

tateko zuhaitzak inguratu zituzten, mozketaren eragozteko, beren mende zeudela jakitun zirelako. 1980an hasi ziren kanpamentuak eta erresistentzia AEBetako hego-mendebaldean. Mugimendu horretan, ekintza zuzeneko metodoak jarri ziren praktikan, hala nola basoen okupazioa, zuhaitzetan esertzea, eta abar, zuraren industria kolokan jarritz. Bertan nabarmendu ziren Judi Bari, zerbitzu sekretuen ondorengo helburua, eta Julia Butterfly Hill,

738 egunez zuhaitz batean egon zena.

Horiek izan ziren Earth First!-en eta basoen defentsarako ekintza zuzenaren has-tapenak, 1990eko hamarkadako Britainia Handiko errepideen aurkako mugimendu handia ere inspiratu zuena, "GaztEgin"-en ezagutu eta islatu nuena: M15, Newbury, Preston, Pollock, Twyford Down, Sollsbery Hill... borroka programatutako errepide bakoitzean errepikatzen zen.

Mugimendu hori, era berean, inspiratzailea izan da gaur egun arte; izan ere, diogun bezala, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da baso suntsiketari aurre egitea. Euskal Herrian basoen aldeko borroka proiektu handiei lotuta dago, nahiz eta 1979an Aezkoako (Nafarroa) mozketaren industrialari aurre egin zitzaion. Leitzarango Autobidearen aurkako borrokan, besteak beste, baso horren defentsa planteatzen zuen (ez bakarrik) kanpaldi iraun-

korra egin zen, eta Itoizko urtegiaren aurkako borroka okupazio eta sabotaje ekintza handiengatik gogoratzen da. Azken borroka hori ez zen soilik Urrobi ibaiaren ibarreko basoetara mugatzen, hiru erreserba naturalak eragiten zien.

AHTren aurkako erresistentzia zuhaitz mozketari aurre egiteko moduak inspiratu zuen, 2009an, edo, ondoren, Itsasondan, 2010ean, kateatzeari eusteko, ez tuneletan, meategi batean baizik, baina oso antzeko ezaugarriak ditu (baten bat aipatzearren). Espainiar Estatuan Les Guilleries (Girona) basoan dagoen Muy Alta Tension (MAT) linearen aurkako kanpamentua da nabarmenetako bat 2009 eta 2010 artean. Eta frantziar Estatuan, famatuena Nantsekoea izan zen, 2009tik aurrera, aireportu proiektuaren aurka, edo AHTren aurkako kanpamentua Susako haranean.

Kenyan, Txilen, Argentinan edo Guatemalan ere izan dira kanpaldiak eta okupazioak, sarri errepresio gordinagoa jasaten duten arren.

AMAL TXIKIA, HAUR ERREFUXIATUEN SINBOLO

Jaiotzez siriarra da eta 12 herrialde eta 85 hiri igaro ditu jada errefuxiatuen mezua hedatzen

ITXAROPENA / Ainara Lertxundi

Amal Txikia ez da txotxongilo soil bat. Siriako haur errefuxiatuen sinbolo bihurtu da. 2021eko uztailaren 27an, Turkia eta Siria arteko mugan dagoen Gaziantepetik atera zen bere amaren eta etorkizun hobe baten bila. New Yorkera iritsi berri da 85 hiritatik pasatu ostean. Errefuxiatuen errealitateaz kontzientzia sortzea du helburu.

Amal Txikia 3,5 metroko altuera duen txotxongiloa da. Siriarra da jaiotzez, baina gerraren ondorioz Turkian errefuxiatuentzat zabaldutako kanpaleku batean bizi da. Amarengandik banandu behar izan zuen, eta haren bila dabil orain mundu zabalean. Hala, 2021eko uztailaren 27an, Gaziantepetik –Turkia eta Siria artean– atera zen 9 urterekin eta geroztik 8.000 kilometro baino gehiago egin ditu. Hamabi herrialde zeharkatu ditu jada, hala nola Belgika, Suitza, Alemania, Frantzia, Grezia eta Italia, non Aita Santuak berak harrera egin zion. Berak ere Poloniako tren geltoki batean harrera egin zien gerratik ihesean iristen diren errefuxiatu ukrainarrei. Orotara, 85 hiritan egon da eta 190 ekitaldi baino gehiagotan esku hartu du. Milioi bat lagunek izan dute bera ikusteko aukera.

Irailaren 14an New Yorkeko JFK aireportura iritsi zen, eta harrera beroa egin zioten. Hirian urriaren 2ra arte egongo da eta ordura arte 55 ekimene-tan esku hartuko du New York osatzen duten bost barrutie-

tan. Guztiak doakoak izango dira, heldu nahiz umeei zuzendutakoak. Leku turistikoak bisitatzeaz gain —Times Square, Grand Central Station, Historia Naturaleko Museo Amerikarra eta Parke Nagusia, besteak beste—, Manhattan ezagunetik urrun dauden komunitateetara ere joango da, hala nola Corona Queens auzora eta Bedford–Stuyvesant Brooklynera.

Washington Heights-en saltza dantzatu, Coney Island-eko itsas pasealekutik ibili, Jack-


son Heights-eko bateria jotzai-leak entzun edo Geltoki Nagusi Handian oinezkoak agurtu eta horiekin argazkiak egin... horiek izango dira egingo dituen beste ekintza batzuk.

NEW YORKEKO ALKATEA

«New York hiri interesgarria da, desplazamendu, migrazio behartu eta migraziotik abiatuta eraikitako hiria delako. Sormenaren, berrikuntzaren eta ausardiaren motor oso interesgarria da. Horregatik, egitasmo hau hona ekartzea be-

Behean, Amal Txikia iazko urriaren 23an Londreseko zubitik paseatzen. Orduan 9 urte zituen. Goian, pasa den ekainaren 27an Folkestoneko hondartzan eta irailaren 15ean, New Yorkeko Liburutegi Publikoan.
EUROPA PRESS





rezia da guretzat», adierazi du Amir Nizar Zuabik, The Walk-eko zuzendari artistikoak.

Eric Adams alkateak ongie-torria egin dio. «Hiritar guz-tion izenean, ongie-torria eman nahi diot. New York etorkinen hiria da; gutako ba-koitza beste leku batetik gatz, hori da hiri honen magia: jato-rrri desberdineko pertsonak el-karrekin bizitzen leku berean. Ez du inporta gure arbasoak Mayflowerretik, gerraren bate-tik ihesean edo gaur goizean Texasetik iritsitako autobus batean etorri diren. Elkartasu-na, laguntza eta ulermena zor diogu elkarri eta errefuxia-tuen krisia edonor konpromet-itzen duen krisialdia da. Ez du inporta krisialdi hori Europan, Asian edo Ameriketara bada. Mugak apurtzen dituen kri-sialdia da. Amalek erakutsi di-gu egoera ilunenean ere espe-rantza badagoela. Oso harro gaude Amal gure artean izate-az eta ongie-torria ematen dio-

gu New Yorkeko bost barrutie-tara. Besoak zabalik hartzen dugu ekartzen digun mezua, gizatasunez eta duintasunez beterikoa», plazaratu du Adamsek Twitterren zabaldu-tako mezu batean.

«Amalek indarkeriaren edo beste arrazoi batzuegatik be-raien bizilekuak utzi behar izan dituzten munduko haur guztiak irudikatzen ditu», azaldu du Yazmany Arboleda kolonbiarrak, New Yorkera 3,5 metroko altuera duen txo-txongilo honen bisitaren ekoizle artistikoak.

NARRATIBA ALDATU

Amal Good Chance antzerki konpainiak Handspring Pup-pet Company txotxongilo tal-dearekin lankidetzan martxan ipini zuen «The Walk» (Bidea) izeneko proiektuaren baitan kokatzen da.

«Munduaren arreta gaur egun beste leku batean dago, baina inoiz baino garrantzi-

tsuagoa da errefuxiatuen kri-siari buruzko elkarrizketa ber-piztea eta narratiba honen in-guruan jartzea. Errefuxiatuek janaria eta mantak behar di-tuzte, baina duintasuna eta ahotsa ere behar dituzte. The Walk-en helburua errefuxia-tuaren potentziala nabarmen-tzea da, ez bakarrik haren in-guruabar beldurgarriak. Amal Txikiak 3,5 metro neurtzen du, mundua bera agurtzeko adina haztea nahi dugulako. Amal inspirazio iturri bat izatea nahiko genuke, pertsonen pen-

«Amal» hitzak arabieraz «itxaropena» esan nahi du eta horixe da egitasmo honek zabaldu nahi duena; errefuxiatuekiko elkartasuna eta etorkizun hobe baten esperantza

«Migrazioaz eta errefuxiatuez hitz egiten dugunean, ahaztu egiten zaitu erdiak baino gehiago umeak» direla, nabarmendu dute The Walk proiektuaren sustatzaileek

tsarazten diena eta ekintzak egitera bultzatzen dituen», nabarmendu du Zuabik. «Mi-grazioaz eta errefuxiatuez hitz egiten dugunean, ahaztu egi-ten zaigu erdiak baino gehiago umeak direla», gaineratu du txikieneko egoeraz.

«Amalen ibilbidea Turkian hasi nahi genuen herrialdeak errefuxiatuen krisian izan duen rolaengatik. Turkiako kultura egitura milaka urtez bi kontinenteen arteko zubi izan da eta etorkinak, errefuxia-tuak... hartzen tradizio handi-koa da», azaldu du. Arabieraz, *amal* hitzak «itxaropena» esan nahi du, eta hori eraman nahi du txotxongilo honek Europa osora, lekualdatutako mi-lioika haur errefuxiatuaren is-torioez kontzientziatzeko.

Bere ama berriz ikusi, esko-lara joan eta bizitza berri bat hasi nahi duen neska bat da, baina lortuko al du? Hori da The Walk-ekoek luzatu duten galdera eta hausnarketa.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

«Wanderlust»

Pertsonak adina bidaiaitzeko modu dago. Helmuga etxetik gertu egon daiteke, inguruko herri edo hirietan, ezagutzen ez ditugun museo, ibilbide edo txokoak bisitatuz. Egun batzuk izan daitezke, gauak barne, edo egun bereko joan-etorriak. Oso hornituta dauden hoteletan edo kanpin batean ostatu hartuta, naturarekin kontaktu batean.

Bidaiaitzea ohikoa dena hausteko modu bat da, miaketatik, aurkikuntzatik eta harriduratik sortzen den ongizate sentimenduaz gozatzeko. Bidaiaitzean ikasi egiten dugu, perspektiba aldatu eta “hazi” egiten gara. Errutinatik irteteko eta errepikapenaren edo ohituraren ondorioz lo egon daitezkeen beste alderdi batzuk azaleratzeko gonbidapena da. Bidaiek gutxien aurreikusten diren inguruneetan murgiltzen gaituzte,

ziurgabetasun hori urduritasun apur baten iturri izan daiteke, baina askoz gehiago emozio eta abentura sentipenaren iturri. Agian konturatu gabe, gaitasun intelektualak estimulatzeko dituen, sortzaileagoa egiten gaituen eta trebetasun sozial eta emozionalak garatzen dituen estimulu bat barneratzen dugu. Bidaia batek aurreiritzi askotatik askatzen gaitu, batez ere gure jatorriaz bestelako kultura batean murgildu behar dugun edo ohiko errealitatearekin kontraste handia egin dezakegun leku batera joaten bagara.

Badaude etengabe ingurune berriak esploratu behar dituzten pertsonak, jende berria ezagutu behar dutenak, esperientzia desberdinak bizi behar dituztenak, erronka berriak bilatu behar dituztenak. Hau da, estatiko egotea gustatzen ez zaien pertsonak dira, mugimendua eta

ekintza behar dutenak. Wanderlust sindromea oporretara joateko gogo baina askoz gehiago da. Izenak gaixotasun baten aurrean gaudela pentsatzera bultzatzen gaitzakeen arren, errealitate oso urrun gauden.

Interesgarria da jakitea fenomeno hau duela zenbait hamarkadatik aztertzen ari direla. Wanderlust sindromean, leku batean luzaroegi ez egoteko beharra nagusitzen da, bidaiaitzeko gogo pairatzen dutenen bizitzaren erdigune bihurtuz. Wanderlust efektua alemanezko hitz elkarte batetik dator: *wandern*, «norabiderik gabe ibiltzea» eta *lust*, «pasioa». Moda izatetik harago, aditu batzuek diote wanderlust sindromea gure geneetan aurkitzen dela, eta zehazkiago DRD4-7R deiturikoan, dopamina hartzaile batean (plazeraren neurotransmisorea), zeina “gene bidaiaia” izenez bataiatu den eta biztanleriaren ehuneko hogeia inguruan egongo litzatekeen.

Helmugak helburu izateari uzten dionean bidaiaitzeko plazeraz gozatzeko aitzakia hutsa bihurtzeko, wanderlust esperientziak bere esanahi osoa hartzen du eta bizimodu bihurtzen da. Bidaiaitzea plazer bat da askorentzat, baina biztanleriaren ehuneko hogeia errentzat premia bat da. Leku berean luzaro egoteak gogo nahasi bihurtzen du eta hutsunea sortzen du, non beti zerbait falta den, non ezezaguna eta esploratu gabea den adrenalinazko “txute” horren gabezia ia zerbait mingarri gisa sentitzen den.

Edozein modutan, ukaezina den zerbait dago; ezaguna den eta aurreikus daitezkeenetik aldi baterako aldentzeko gai izateak gure garapen pertsonalari laguntzen dio.

Ez izan zalantzarik: bidaiaitzeak beti eramaten gaitu norabait. •



Bidaiaitzea gure ohikotasuna hausteko modu bat da.

Gorka RUBIO | FOKU

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Gatazkari buruzko filmek jasotzen duten babes

Ezin zitekeen beste modu batez izan. Aurtengo Zinemaldiak ere halaxe erakutsi du: ETaren ziklo armatua amaitu ostean hain markada oso bat pasatu delarik, garai hartako eta, oro har, euskal gatazkari buruzko lanak –kasu honetan, zinemarako pelikulak eta dokumentalak– ugaritzen ari dira. Hala behar du izan, 60 urteko ziklo horrek argipena, azterketa eta hausnarke-ta merezi baititu, oraindik itxi gabe egon arren: preso-ak daude kartzelan, sufrikario askok eta askok behar beste aitortu gabe segitzen du eta gatazkaren muinean dagoen arazo politikoari ez zaio gaur-gaurkoz behar bezala heldu.

Lagun bati entzun nion behin kontua ez zela gatazkaren –edo gatazkaren arlo bakoitzeko– liburu edo film borobil bat egitea, dena argituko duen liburu edo filma. Dozenaka liburu eta film beharko direla dio lagun hark.

Jakina, jite eta norabide ezberdinak dituzte azken urteotan plazaratu diren lanek, ikuspuntu ezberdinak; batzuetan bizipen pertsonalei lotuta, beste batzuetan gaiari hurbiltzeko jakin-minez eta zenbaitetan intenzionalitate politiko garbiekin. Horrek ere hala behar du izan, ezinbestean.

Hainbatek hau dena «errelatoaren bataila» deritzanaren barruan kokatzen du, kokatu nahi du, eta horregatik lan batzuk beste batzuen gainetik indartzeko apustua nabariegia izan ohi da. Haatik, kontakizunaren batailarena ez da aurrera begirako ikuspegi zuzena, eta bataila horretan itsuki murgiltzen direnen asmoa, nagusiki, errealitatearen zati bat estaltzea baino ez da, kontakizun faltsu bat gailentzeko, ikuspuntu kritikoaren kaltetan, propagandaren mesedetan.

Lan batzuek beste batzuen ondoan jasotzen duten babes eta laguntza alderatzea besterik ez da behar horretaz ohartzeko.

Adibide esanguratsua dugu “Karpeta urdinak” film-dokumentalarena. Berez, torturari eta indar polizialen tratatu txarrei buruz Eusko Jaurlaritzak bultzatutako txosten bat pelikula bilakatzeko lana baino ez da, eta espero zitekeen horrek erakunde publikoen aldetik zerbait ekartzea. Ez da horrela izan.

INDARKERIA MASIBOENA

Aipatu txostenak 2017ko abenduko data du eta Kriminologiaren Euskal Institutuaren eskutik egin zen; besteak beste, Pako Etxeberria antropologo-forentsearen gidaritzapean. Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak enkargatutako lana izan zen. Ekimen ausarta izan zen, serio-ri egin eta bideratua.

Kontakizunaren bataila horretan itsuki murgiltzen direnen asmoa, nagusiki, errealitatearen zati bat estaltzea baino ez da, kontakizun faltsu bat gailentzeko

Bost urte pasatu dira eta badirudi txostena enkargatu zutenek ez dutela orain interes handirik lan hartan, edo lan hartatik ateratako ondorioetan. Izatekotan, txosten hark abiapuntua izan behar zuen gaiari behar bezala heltzeko, baina, antza, hura dena bere horretan uzteko erabakia nagusitu da, oraingoz bederen.

Izan ere, txosten horrek torturaren errealitate lazgarria azaleratzearekin Euskal Herrian pairatutako indarkeriaren arazoa bere osotasunean azaltzen du; modu ezin argiagotan, gainera. Ez dago zalantza askorik txostena irakurrita, edo filma ikusita: tortura izan da indarkeria mota masiboena, eta polizia indar guztiek erabili dute muturreko basakeria hori, hainbati onartzea nekeza egiten bazaio ere. •

URAREN GESTIOARI BEGIRA

Basoan hasten den gertuko kudeaketa eta gestioa urruntzen duen eredua, aurrez aurre

Agorraldi bete-betea gurean izaten ari den ur eskasiak lehen planora eramandu uraren gaia. Hala ere, ura bermatzeko hartutako irtenbideetan zentratu dira begiradak, baina ez horri lotuta dauden kudeatzeko sistemak aztertze-ko. Beste era batera esanda, azken gertaerei heldu zaie Busturialdean edo Karrantzan, esaterako, batean ura eramateko itsasontziaren irudi inpaktagarrietan islatuta; eta bestean, herrira Kantabriako Ramalesetik ekarritako kamioienetan. Adibide bi horietan, kudeaketa bat dago atzean, eta egun ura kudeatzeko sistemen kontzentrazioa eta pribatizazioa dakartzan joera nagusia kolokan jartzen duten esperientziak daude. Herri bietan, euren lurretan dituzten baliabide hidrikoen erabilera defendatzen dute.

Duela ez asko estreinatu den “Monopolia” dokumentalean, David Hoyos irakasleak gogoratzen du ura udalen eskumena dela, eta horrek kostu handiko instalazioen mantenua eskatzen duela. Tokiko administrazioentzat den zama ekonomiko horrekin lotuta daude, hain zuzen, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergo handian sartzeko erabakiak. Baina non gertatzen dira udal txikiak hain erakunde handian? Erabakiak hartzeko zer gaitasun dute? Zer gertatzen da handian, tokiko baliabideekin?

Gai potoloa izan arren, ez da kalean dagoen gogoeta bat. Urik eza lehen mailako arazo izan arte inork gutxik galde-tzen dio bere buruari tokiko ur baliabideak zeintzu diren, nola zaintzen eta erabiltzen ari di-

 **HIDROLOGIA** / Nerea Goti

Lerroburu deigarriak eman dituzten ur eskasiako garai hauetan, atzean dagoen ur kudeaketari begiratu dio GAUR8k pribatizazio haizeen aurrean gertuko baliabideen zaintza defendatzen duten bi alkaterekin. Zero kilometroko uraz hitz egiten dute, baita basotik txorrotaraino doazen baliabide horien garrantziaz ere.

ren... Baliteke txorrota zabaltu eta ura falta gabe edukitzera ohituta gaudelako izatea, edo urez inguratuta gaudelako eta lehortea pasatuta arazoa “desagertzen” delako edo gai konplexua delako, herritarren deskonexio horren atzean egon daitekeen errealitatearen inguruko azalpen ezberdinak jartzearen.

Hala ere, adituen esanetan, klima aldaketaren ondorioz, gero eta ohikoagoak eta muturrekoagoak izango dira fenomeno horiek. Ur baliabideen gestioa, beraz, lehen lerroan dago, kalean izan ala ez.

URA IZATEARI LOTUTAKO GUZTIA


Aurtengo egoerara itzulita, sikate handia dago, ados, baina

aurreikuspena, planifikazioa, dauden akuiferoen eta azpiegituren egoera eta erabilera, basoen kudeaketa... ura izateari lotuta daudela gogorarazten dute zenbait ahotsek. Edozein sistematan, adituek aipatzen duten segurtasun hidrikoa kudeaketaren ardatzetako bat da.

Adibide zehatzetara joanda, hornidura ziurtatzeko mozke-

tak izan dira hainbat udalerritan, eta ura kanpoan bilatu behar izan dute beste zenbaite-tan. Busturialdea, esaterako, edateko ura garraiatzeko lehen aldiz erabilitako itsasontziagatik izan da albiste. Karrantzan, kamioietan eramane behar izan dute ura San Esteban auzoko baltsara Kantabriako Ramalesetik ekarrita. Adibide ezagunenak dira baina ez dira ura zisternaz garraiatu behar izan duten udal-erri bakarrik.

Azken kasu honetan, harritzekoa bada ere, ur eskasiaren aurrean Kantabriako herrian aurkitu behar izan dute irtenbidea, ez Bizkaian, Foru Aldundiaren edo Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren laguntzarekin adibidez. Udal-erriak bizi duen larrialdi egoerak ez du aspaldi-



tik dagoen gatazkari soluziobide bat emateko balio izan. Egoera bitxia benetan, uraren hornidura bezalako oinarritzko zerbitzu bat izanik.

Beste kasu adierazgarri bat, Busturialdekoa. Erabakiak hartzeko zentroa eskualdetik Bilbo Handira pasatu denetik, gauza asko aldatu dira Bizkai-ko ekialdeko eskualdean. Ur eskasiari emandako erantzuna hedabideetatik ezagutu dute, ezagutzen ez dituzten irizpideetan oinarritutako erantzuna, hain zuzen. Opakutasuna da uraren gestioaren ardura-dun berriari leporatzen zaion arazo bat, baina, oro har, ur sistemari begiratzeko modua zeharo aldatu dela egiaztatu dute.

Kudeaketa ereduak ez dituzte sikateak ekiditen, baina baliabideen egoera eta erabilera antolatzeke tresnak dira, eskualdeak berak daukan ura gestionatzeko. Hoyosek aipatzen duen moduan, «zero kilometroko» ura izango litzateke hurbileko eredu baten abiapuntua, azpiegitura handien eta hargune bakarrean oinarritzen diren eskala handiko sistemen aurrean.

LEKUKO BALIABIDEAK LEHENESTEA

Iratxe Arriola, Eako alkatea, Busturialdeko Ur Partzuergoko (BUP) presidente ohia da, baita Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzeko erabakiaren aurka altxatu den aholketa bat. Busturialdean, urarekin zer gertatzen den galdetuta, argi dio defizit hidrikoa aspaldikoa dela, baina hori bezain argi dio eskualdean egoera horri aurre egiteko baliabideak egon badaudela.

Defizit hidriko horren atzean hamarkadetako utzikeria eta inbertsiorik ez historikoa egon da. «Gure baliabide hi-



Ondoko orrialdeko irudian, hoditeriak Gernikan. Lerro hauen gainekoan, Ea herriko Ulla hargunea. Aritz LOIOLA | FOKU

drikoak ez ditugu behar bezala zaindu», azpimarratu du, eta planifikazio hidriko baten premia aipatzen du. «Ez dago Euskal Herri mailako planifikazio hidrikorik, gure lurraldetasunari lotuta eta lekuan lekuko baliabide hidrikoak, o kilometrokoak lehenetsiko dituenik», dio 2011-15 legealdian BUPEko buruan egon zen ordezkari politikoa.

Busturialdeko egoerari begiratuta, eskualdeak dituen ezaugarri hidrikoek nahiko sistema dibertsifikatua osatzen dutela dio. Izan ere, eskualdean 20 ur hargune baino gehiago daude. «Ez da berdina urtegi bat izatea edo mendian dauden ur harguneekin funtzionatzea», zehaztu du.

Aldiz, iturri bakarrera joatea izan da joera orokorra, baina horrek «ekonomia eskaletan funtzionatzen du, energia kontsumo handiarekin, eta ura dagoenean, zeren 1992. urtean

sikate handia egon zen eta ia ur barik geratu ziren Bilbo aldean», ekarri du gogora.

GALTZEN DEN UR ERABILGARRIA

Ur sistema horren detaile bat. Ura itsasontzian ekarri duen eskualde horren altxor hidrikoetako bat Gernikan dago: La Vega industrialdean dagoen akuiferoa. Putzu ezberdinez osatuta dago; horietako bat, «laugarrena» industria traze-kin kutsatuta dago, eta ez da edonolako ur emaria, segundoko 60 metro kubiko ematen baitu.

«Horrekin nahikoa litzateke uda partean dagoen ur defizitari aurre egiteko», azpimarratu du Arriolak. Izan ere, ur kutsatu hori tratatzeko sistema bat jarri zen martxan duela urte batzuk, eta nahiko kalitate oneko ura ematen duela erantsi du. «Edateko ez bada ere, beste erabilera batzuetara bideratu zitekeen, lorategiak

ureztatu, industrian erabiltzeko... eta galtzen ari da, saneamendura doa, ez da ezertarako erabiltzen», nabarmendu du.

Beste arazoetako bat dago eskualdean: hoditeriaren egoera kaskarra. Eskualdeak Oizko hargunetik hartzen du ura. Akuifero horren ura daraman hoditeriak 70 urte baino gehiago ditu, frankismoaren garaikoa da eta galera handiak ditu zenbait puntutan. Egun daukan diametroarekin, segundoko 20 litro (l/s) ematen du. Azpiegitura horren diametroa handituz gero eta ondoko Ibarrurin hargune berri bat eginda, segundoko 70 litroko ur emaria lor zitekeen, 6.000 metro kubiko lortzeko.

Oizko harguneak behar dituen inbertsioez gain, eskualdeko azpiegiturak berritzen joan beharra dago, eta horrek kostu handia dauka. Kontuan hartzekoa da, gainera, azalera handiko eskualdea dela, Bizkai

osoko %10 da Busturialdea. «Horrek zer suposatzen du? Kilometro askoko hoditeria berritzea», aipatu du alkateak.

Azpiegituretan inbertsiorik ez egitea hamarkadetan zehar errepikatu den joera izan da. Lanen premia gero eta agerikoagoa bazen ere, EAJren eskuetan egon zen partzuergoak ez zion gaiari heldu.

Kapitulu ekonomikoan, gainera, milioi euroko zorra pilatua zuen ura kudeatzen duen erakundeak, Bildu agintera heldu zenean. «Lau urtetan ezin da miraririk egin, baina BUpEk arrastaka zeraman egoera ekonomikoari buelta ematea lortu zen, eta 500.000 euroko gaineratikoa utzi, azpikontratetan utzitako zerbitzu asko berreskuratu eta zuzenean ematea lortu zen, baita sarea berritzeko zenbait lani ekin ere», zehaztu du presidente ohiak.

2001-2015 laurteko horretan lortu zen, era berean, La-kuako Gobernuak saneamenduaren kolektorea egiteko falta zen inbertsioa konprometitzea. Gernika eta Bermeo arteko zatia eginda dago, baina Muxikatik Gernikara arteko falta da, nahiz eta 2018ko aurrekontuetan konprometitututa egon, gogoratu duenez.

%40RAINOKO UR GALERAK

Eskualdeko ur sistemaren planifikazioa jasotzen zuen txosten teknikoa idazteko prozesua jarri zen abian: Busturialdeko Hornidura Lurralde Egitamua. Txosten tekniko horretan, diagnostikoa egin zen, eskualdean dauden baliabideak, duten emaria, kontsumoak (turismoa dela eta nabarmen aldatzen baita uda aldean), zer optimizatu zehazten zuena, eta horrekin batera konpondu beharreko sarearen zati ezberdinak ze-

rrendatzen zituen, hoditeria- ren zenbait zatitan %40oraino heldzen diren galerak baitau- de.

GUGGENHEIM PROIEKTUA

Jasotakoa ez da martxan jarri eta baliteke mahai gainean ge- ratzea, protagonista handiago bat daukalako orain eskualde- ak, Guggenheim Urdaibai proiektua. Egitasmoarekin sortuko diren behar berriei au- rrea hartzeko, eskualdeak Za- dorrako ura jasoko du 2026. urtean, «komunikabideen bi- dez jakin ahal izan dugunez», zehaztu du Arriolak.

Aho batez adostutako plani- fikazioa alde batera uzteaz gain, tokiko ur baliabideak egoki kudeatu eta zentzuzko inbertsioak egin beharrean in- bertsio handiagoak eskatuko

ditu, «gure urak abandonatzen joan eta Zadorratik ekartzeko arteria» egiteko.

Azken atal hori, gardentasu- narekin eta informazioarekin lotutakoa, hain zuzen, ur par- tzuergo handian sartzeak eka- rri duen beste aldaketa handi bat izan da. Hasteko, manko- munitateak berak eta herriek ez dute ordezkapenik antola- kunde berrian. Asanblea da or- dez-kari ezberdinak biltzen di- tuen organoa, baina exekutiboa da erabakiak har- tzen dituen, eta hor udalerri bakar batzuek dute ordezkari- tza. «Eskualdea desagertuta dago erakunde handi horre- tan, eskualdeko inork ez dauka ahotsik bertan, eta babesgabe- zia argia dakar horrek», nabar- mendu du Arriolak.

Edozein kudeaketa publiko-

tan, baita urarenean ere, gar- dentasuna eta ordezkarien eta herritarren parte-hartzearen bermea sistemaren zutabe na- gusietako bi izan beharko lira- teke. Erabakiak hartzeko zen- troa eskualdetik kanpo egoteak beste ondorio batzuk ekarri ditu.

ESKUALDEA, AHOTSIK GABE

Asanblean biltzen dira orde- zkari ezberdinak, esan bezala, baina exekutiboak hartzen di- tu erabakiak, eta udalerri ba- kar batzuk baino ez daude or- dezkatuta hor. Eskualdeak ez du zeresanik erakunde handi horretan, ez dauka ahotsik.

Horrek ez du laguntzen es- kualde mailako egoera hobe- tzen, eta intzidentziei dago- kienez ere eragin nabarmenak ditu. Azpikon-

Oka ibaiaren itsasadarra, Gernikan, La Vega industrialdearen inguruan. Bertan, putzu kutsatu baten urak tratatzen duen sistema dago. Ur hori ez da edangarria, baina beste erabilera batzuk izan ditzake. Aritz LOIOLA | FOKU



tratekin eta eskualdea ezagutzen ez duten enprekin lan egiten duen erakunde erraldoi batek erantzuteko zailtasunak ditu. Krisialdi betean, soluziobide bat edo bestea hartu aurretik eragile ezberdinak entzun beharko liratekeela planteatzen du Arriolak.

Ur eskasiaren kudeaketan bertan bidalitako mezu kontrajarriak jarri ditu mahai gainean: udal bandoek herritarrei ur kontsumoa kontrolatzeko eskatu eta kaleko iturriak itxita zeuden bitartean, Gernika-ko lorategiak baita futbol eta errugbi zelaiak ere edo Gernikako Juntetxeko lorategiak eurak ureztatuta egotea.

Arriolaren ustez, uraren pri-

batizazioa dago azken urteetan egin diren urratsen atzean. Horren harira, duela urte batzuk Bilbon bertan gaiaren inguruan egindako foroan bildutako agintari politiko ezberdinek lankidetza publiko-pribatuaren alde azaldutako jarrera ekarri du gogora.

Azken oroitzapen bat ere jarri du mahai gainean Eako alkateak: urteetan, proiektu idatzia eginda izanik, Diputaziora jotzen zutenean Oizko hoderia konpontzeko eskatzera, zera erantzuten zieten: «Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoan sartzen ez bazarete, ez».

Karrantzako udal gobernu taldeak ere erantzun berdina aurkitu du.



Karrantzako Cerroja baltsa, artxiboko irudi batean. Luis JAUREGIALTZO | FOKU

KARRANTZA ALDUNDIAREN LAGUNTZARIK GABE, UR PARTZUERGOAN SARTU EZEAN

EAJk gidatzen dituen erakundeetatik bultzatzen den kontzentrazio prozesuaren beste adibide adierazgarri bat da Karrantzakoa, eta bitxia, ia sinesgaitza, jokoan ura bezalako oinarrizko zerbitzu bat egonik. Udalak zuzenean kudeatzen du ura, herri osoaren hornidura bermatzen duten berezko baliabideekin, kontuan hartuta oso azalera zabaleko udalerrria dela, baita Bizkaian behi abelburuen kontzentrazio handiena duena ere. Behar horiei guztiei erantzuteko ur nahikoa izan arren, azpiegiturak berritzeko inbertsioak behar ditu herriak. Bizkaiko Diputazioari horretarako laguntzak eskatzean, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko kide egitea da erantzuna; bitartean, «Karrantzarentzat euro bakar bat ere ez», azaldu du Raul Palacio alkateak Elena Unzueta foru diputatu ohiaren hitzak gogora ekarrita.

Egoera berezia da, zeren Diputazioak arazo horren ardura dauka, alkateak nabarmendu duenez. Datuak eman ditu Palaciok: «Herrian

ura hartzeko bi baltsa ditugu: Argañeda, %13an dagoena; eta Cerroja, %33an. Hilabeterako ura daukagu gutxi gorabehera». Kontua da Argañedakoa %43 baino ezin dutela bete neguan, «arazo estrukturalak dituelako Diputazioak orain hamabi urte inguru eraiki zuenetik, eta horrek bildu ezin ditugun milaka metro kubiko asko suposatzen du». Diputazioak zergatik ez duen konpontzen, horra galdera logikoa. Erantzunean urteetako gatazka azaltzen da. Karrantza Zabala hautagaitzaren ordezkariaren ustez, Udalaren autonomia errespetatuz herrian beharrezkoak diren azpiegiturak bermatu beharko lituzke Diputazioak, ur partzuergoan sartzea erabaki ala ez.

Udalak bi hitzarmen zituen sinatuta Diputazioarekin, 2011ko bat eta 2014ko beste bat: hondakin uren araztegiari buruzkoa eta eurek eraikitako edateko uraren tratamendurako estazioari buruzkoa, «Diputazioak eraikitakoa eta itxita dagoena, 10 milioi euroko inbertsioa

egin ondoren». Palaciok zehaztu duenez, «konexioak falta dira gure hornidura sarearekin». Alkateak dio hitzarmen bietan jasota zegoela lanak bukatzean Udala ur partzuergotik kanpo egon zitekeela. «Aldiz, 2015etik aurrera Karrantzari eurorik emango ez diola dio Foru Aldundiak (Bilbao-Bizkaia) ur partzuergoan sartzen ez bada».

Gatazka auzitara eraman dute, eta epaiek iraungitza jotzen dituzte hitzarmenak, Palacioren esanetan. «Baina, era berean, argi diote hori ez dela oztopo Udalak Aldundiari beharrezko lankidetza ekonomikoa eta teknikoa eskatzeko, partzuergoan sartzen garen edo ez kontuan hartu gabe».

Karrantza Zabala taldeko bozeramaileak onartzen du arrazoi ideologikoak egon daitezkeela partzuergoan sartzeari ezetz esateko, uraren pribatizazioaren aldeko joera dela-eta, baina egun Karrantzari erakundeko kide izateko eskatzen zaizkion baldintzak direla ateak ixten dituztenak.

Izan ere, ur partzuergoan sartzeko, «10 milioiko inbertsioa eskatzen digute, hornidura sarea bakarrik aipatuta, eta hori Udalak bere gain hartu ezin duen kostua da, kiebra joko luke. Guretzako bideraezina dela dioen udal idazkariaren txostena daukagu», argitu du.

Bigarren oztopoa, herrian nagusi den abeltzaintzarekin lotuta dago. «Bizkaiko esne azientaren %80 hemen dago», zehaztu du. «Diputazioak berak partzuergoan sartzeak gure ganadutegietan izango zuen inpaktuari buruzko txostena enkargatu zuen, eta ondorioztatu zuen egun bizi duten krisi orokorrarekin, tasa berrien kostuei aurre egin ezinik egongo liratekeela azienden %70». «Haietzako mugiezinak ziren baldintza horien aurrean ezetz esan genion partzuergoan sartzeari», argitu du alkateak. Erantsi duenez, «guretzako erabat itxita daude partzuergoaren ateak, objektiboki bideragarria ez delako eta ez dugulako gure aziendeen %70 ixten lagunduko».

42

bertsolari arituko dira txapelketan. 36 abiatuko dira lehen fasean, herrialdeetako txapelketetatik sailkatutakoak. Sei bertsolariz osatutako sei talde egingo dira eta saio bakarrera lehiatuko dira. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera; puntu gehien batzen dituztenekin osatuko da finalaurrekoetara igaroko den taldea.

Bost finalista

2017an finalean aritu zirenetatik bostek eman dute izena: Unai Agirre, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi. Finalaurrekoen lehen itzulian igoko dira txapelketako trenera. Finalaurrekoak bi itzulira jokatu dira. Maialen Lujanbio, egungo txapelduna, zuzenean finalean lehiatuko da.

25

urteko aldea dago parte hartzaile gazteenaren eta zaharrenaren artean. Gazteena, Gorka Pagonabarra, 2000. urtean jaioa. Zaharrenak, Unai Agirre eta Aitor Mendiluze, 1975ekoak.

BTN 2022

BERTSOAREN SOKA TENKATUTA, HITZEN AKROBAZIEN ZAIN

BADATOR 2022ko BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA. GETXON HASIKO DA GAUR ETA SOKAREN BESTE MUTURRA, IRUÑEAN, ABENDUAREN 18AN. TARTE HORRETAN 42 AHOTS, KASIK 1.400 BERTSO, GOZAMENA, URDURITASUNA, EZUSTEKO GOZOAK ETA ERORIALDI MIKATZAGOAK KABITUKO DIRA. HITZAREN KIROL NAZIONALAK ALTXATZEN DUEN OLATU HANDIENA DA TXAPELKETARENA, LAU URTEAN BEHINGO APARRALDI GOZOA. AURTENGOA BOST URTEREN ONDOTIK DATOR, PANDEMIAREN KOLPEAREN OSTEAN PLAZAREN OSASUNA BIZKORTZEKO ZAIN EGON BAITIRA. BERTSOZALEEN ARTEAN IGARTZEN DA GOGOA, SARREREN SALMENTA OSO BIZI JOAN DA.

Nerea Erbitik eta bere taldeak prestatu dute aurtengorako sintonia. Duela egun batzuk Amasa-Villabonan izandako ekitaldian zuzenean jo zuten doinua eta dagoeneko sumatu zen hemen-

dik eta abenduaren 18ra bitartean nola piztuko dituen bertsolariak eta bertsozaleak. Nola doinua entzun orduko tenkatuko den soka, hitzaren akrobatek pausoan, saltoka edo txirribueltaka pasatzeko ariketaz arieta, bakoitzak nahi duenetik eta ahal duenetik.

Txapelketaren lehen txanpan, 36 bertsolari lehiatuko dira, herrialdeetako txapelketetatik sailkatutakoak. Horietatik herenak berriak dira, lehen aldiz arituko dira Txapelketa Nagusian. 16 gipuzkoar, 10 bizkaitar, bost nafar, bi arabar eta hiru lapurtar abiatuko dira lehen fasean. Finalau-

35

urte, hori da parte hartzaileen batezbestekoa. Lehen faseari erreparatuta, 33 urtekoa da. Hamabost bertsolarirentzat lehenengo txapelketa nagusia da. Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluzerentzat, zazpigarrena. Lujanbio finalista izan da 1997tik gaur arteko txapelketa guztietan.



%35,7

dira emakumeak parte hartzaileen artean, guztira 15 izango dira, horietako bat egungo txapeladuna eta aurtengo lehen finalista. 2017ko txapelketan emakumeak %30 izan ziren. Bizkaiko eta Nafarroako azken txapeladunak emakumeak izan dira.

13.000

Iruñean

Abenduaren 18an Iruñeko Nafarroa Arenan 13.000 lagunentzako tokia paratuko dute, lehendabizikoz finala bertan izango baita. Finalak Donostian errotuta egon ziren 1935-2001 urte bitartean. 2005ean Barakaldoko BECera egin zuen salto. Eta, aurten, Iruñera.

Ganbara

Kartzelako lana «ganbarako» lana izango da aurrerantzean. 60 urtez «kartzela» deitu izan zaio txapelketan bertsolariak bakarka gai beraren aurrean probatzeko lanari. Ariketak bere horretan jarraituko du baina Bertsozale Elkarteak izen berria jarri dio: ganbara. «Ganbarak goxotasuna, isiltasuna, aurre-lana iradokitzen ditu. Etxean dagoen gela bat da, baina aldi berean aparte»

rrukoetan sartuko dira sokara 2017ko bost finalista: Unai Agirre, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi. 2017an finalean aritutako Igor Elortzak eta Aitor Sarriegik agur esan diote txapelketari. Beraz, aurtengo finala derigorrean izango da berria parte hartzaileetan.

Hamabost bertsolari berri eta hamabost emakume. Txapelke-

tak zein kolore ekarri ditzakeen begitandu daiteke datuei erreparatuta. Belaunaldi berri baten etorrera ikusiko da eta emakumeen ahotsaren ozenagotzea. Kristina Mardaras izan zen Txapelketa Nagusian kantatu zuen lehen emakumea, 1986an. 1993ko txapelketan bi emakume izan ziren eta geroztik gora egin du kopuruak. 2009, 2013 eta 2017ko txapelketetan ha-

mahiru emakume aritu dira. Aurten, koska bat gora, hamabost izango dira. Bizkaiko eta Nafarroako azken txapeladunak emakumeak izan dira, Nerea Ibarzabal eta Saioa Alkaiza hurrenez hurren. Inorentzat harriz betetako motxila izateko asmorik gabe, ez da apartean uzteko datua.

Txapelketaren berritasunak asko izan daitezke. Batzuk talde

antolatzaileak marraztutakoak; gehienak, bertsolarien jardunak eta bertso bakoitzak ekarritakoak. Bigarren parte horretakoak ezin daitezke aurreikusi, horixe inprobisazioaren xarma. Antolaketari begira, berritasun nabarienetakoa finalaren toki aldaketa izan da, Barakaldoko BECetik Iruñeko Nafarroa Arenara. Bertan prestatuko dute 13.000 lagunentzako tokia

eta oso esanguratsua izan da sarreraren salmentak izan duen erritmoa. Bertsozalea grinatsu dago.

GANBARAKO LANA

Beste berritasunetako bat, saioen aurreko eta ondorengo tertulietarako gaia emango duena, kartzelako ariketaren izen aldaketa da: aurrerantzean, «ganbarako» ariketa izango da.



Ezkerreko irudietan, aurreko astean izandako aurkezpen ekitaldia. Nerea Erbiti eta bere taldea, sintonia egin dutenak. Eta Beatriz Egizabal –ekitaldiaren aurkezlea–, bertsolariak atzean dituela.

Idoia ZABALETA | FOKU

Lerro hauen eskuineko aldean, 2017an Barakaldoko BECen izandako finaleko une bat.

Aritz LOIOLA | FOKU

Hurrengo orrialdean, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña 2001eko finalean, buruz burukoaren aurretik. Eta, alboan, Maialen Lujanbio 2017an txapela jantzi berritan.

Jon URBE | FOKU

Luis JAUREGIALTZO | FOKU



21

epailek osatzen dute aurtengo epaile taldea -gehi bi ordezeko-, hamaika emakume eta hamar gizon, askotariko adin, lanbide eta mundu ikuskera. Lurraldetasuna ere irizpide garrantzitsua da. Lehen hiru fasetan zazpi epaile arituko dira eta, finalean, bederatzi.

1.396

bertso puntuagarri entzungo ditugu Bertsolari Txapelketa Nagusian, dena espero bezala joaten bada. Lehen txandan, hamabosna bertso josi beharko dituzte; lehen finalaurrekoetan, hamasei; bigarren finalaurrekoan, hamalau. Finalean, 25 bertso guztiek eta buruz burukora iristen diren bi bertsolariek, beste hamarna.

14

saio izango dira irailaren 24tik abenduaren 18ra bitartean: Getxo, Arrasate, Gotaine-Irabarne, Gasteiz, Donostia, Lizarra, Elizondo, Donibane Garazi, Irun, Durango, Amurrio, Baiona, Bilbo eta Iruñean.

Fernando Artola *Bordarik* asmatu zuen txapelketako kartzelako lana 1960ko hamarkadako txapelketan, 1935 eta 1936koetan bakarka gai bera emanda bertsolarien denbora aukerak berdintze aldera. Ordura arte gaia jarri eta bertsolari guztiek txandaka kantatzen zioten gai berdinari. Horrek desoreka handia sortzen zuen, azkenak kantatzerako denbora tarte handia

baitzegoen. 60 urtez «kartzela» deitu izan zaio txapelketan bertsolariak bakarka gai beraren aurrean probatzeko lanari. Ariketak bere horretan jarraituko du, baina Bertsozale Elkartek izen berria jarri dio: ganbara. «Ganbarak goxotasuna, isiltasuna, aurre-lana... iradokitzen ditu. Etxean dagoen gela bat da, baina aldi berean aparte. Garuna edo logelari ere deitzen zaio

ganbara. Garai bateko baserri lanetan, ganbaran edo ganerrean artoa aletu bitartean bertsotan egiten zen bertan eta zenbait bertsolarien entrenamendu edo lan-leku ere bada. Oroitzapen politekin lotu izan da normalean», azaldu dute Bertsozale Elkartetik. Gaiak ere berriak izango dira noski, gai-jartzaile talde zabal eta askotarikoak neurri-neurrira

2022ko Txapelketa Nagusiarentzat brodatutakoak, asko hausnartutakoak, gaurkotasunak blaitutakoak eta zartatutakoak. Hamalau lagun ari dira aurtengorako gaiak atontzen, bederatzi emakume eta bost gizon. Bertsolarietan bezala, gai-jartzailetan ere belaunaldi desberdinak korapilatzen dira. Gai-jartzaile horietako batzuk gai-emaile arituko dira saioetan. Baina naba-

ria da atzetik taldeko lana dagoela horretan ere. Bertsolari Txapelketa Nagusia orkestra baten antzekoa da, baikoitza bere tresnarekin, denak dira beharrezko azken doinua gozagarria gerta dadin. Aulkiak paratzen dituztenak ere ezin bestekoak dira. Getxon jarriko da makineria martxan. Hor estreinatuko dituzte aurtengo petoak boluntarioek.



Denok egin beharreko bidaia

**Miren Azkarate
Badiola**

Zirkua fantasiari ateak zabaltzea da. Ezinezkoa den guztia egia bihurtu daitekeen mundu magiko batera bidaia egitea». Eta azer-nolako bidaia egin nuen aurrekoan Gure Zirkua ikusten. Esaldi horrekin hasi zen ikuskizuna eta egunak pasatu badira ere, oraindik bidaiatzen jarraitzen dut.

Nik, bost urteko haurragatik joan nintzen honek, ikaragarri gozatu nuen. Ezin ditut azaldu ordu eta erdi luzean bizi eta sentitu nituen sentimenduak; pailazoen txantxeekin barre egin nuen,

akrobazia batzuekin negar egin nuen, haurrak ikusi nituenean malabarak egiten hunkitu egin nintzen... Gora eta behera aritu nintzen bidaian zehar.

Ez nintzen bakarra izan. Ikuskizuna begiratzeaz gain, nire ingurura ere begiratu nuen eta adin guztietako pertsonak ikusten nituen emozioz gainezka, begiak eta ahoa ezin itxi, parte hartzen, txaloka, abestuz... Adin guztietakoak! Zer ikuskizunek lortzen du hori?

Nire bizitza guztian ez dakit zenbat zirku ikusi ditudan, asko ez, baina argi dut guztiz desberdina izan dela hau,

nahiz eta betiko zirkuaren xarma mantendu; estetika, musika mota bat, hasierako “nola zaudete?” galdera... Baina ez du ikusi ditudan beste zirkuarekin zerikusirik, hasteko eta behin euskaraz delako. Eta uste dut euskaraz izatea gako delako Gure Zirkua berezia izateko. Noski, espektakuluak duen maila gutxietsi gabe, benetan sekulakoa baita.

Ikaragarria izan zen. Bidaia luze bat opa diet bertako langileei. Magia inoiz baino gehiago behar dugun mundu eta momentu honetan, milesker, Gure Zirkua! •

Jainkoa banintz

Antton Izagirre

Nork ez du izan, maiz edo uneren batean, guztiz ahaldua izateko desio hori. Gure inguruan bizitzen edo ikusten ari garena tupustean aldatzeko nahia oso gizatiarra delakoan nago.

Haurren iruditerian pentsamendu magikoa nagusitzen den moduan, gaztaroan errealitatea iraultzeko grinak, amesten dugun mundu hori posible den usteak hartzen du gaina. Agidanez, gure ahalmenak eta gaitasunak mugatuak direla ohartzea heldutasun prozesu baten ondorio izan ohi da.

Gauzak horrela direla jabetuta ere, nekez uko egingo diogu behatz jainkotiarra izan eta hark markatu heinean errealitateak bat-batean aldatu eta errealitate berriak sortzeko jolasari. Se-

guru nago noizbait aurkitu dugula geure burua errealitate birtual edo magiko horren sorkuntzan.

Zenbaitek, neurrigabeko ontasunak eraginda edo, jainkotasuna, ustezko gaitasun hori, munduko desoreka, injustizia, gerra, gosea, pobrezia, ezintasun eta ezbeharrak eragoztera bideratuko luke.


Hala ere, desio mundutarragoek hartzen dute gehienetan gure gogoak. Pentsa dezagun zenbat aldiz, borondate onez edo haserrearekin eraginda, ustez aldrebesak zaizkigun albokoen joerak, tupustean aldatzearekin amestu dugun.

«Mundua dantzan jarriko nuke jainkoa banintza», kantatzen zigun Imanolek, Amurizaren hitzetan. Desio bera

sumatzen nion lagun euskaltzale bati, haserre bizian, estropadetan patroieuskdunak arraunlari euskaldunei gazteleraz aginduak ematen entzunda: «Kontzientziarik ezean, ahalmen jainkotiarra beharko genuke euskal jendar-tearen hizkuntza joerak aldatzeko».

Baina tira, nahiz gure asmo subjektiboek gure ingurua onbidean jarriko luke eta uste izan, arriskugarria litzateke ahalmen mugagabe horien jabe inor egitea. Historiak erakutsi digu naturaz gaindiko botereak bereganatu nahi izan dituztenek mendekotasun militarra eta esklabotza ezarri izan dutela.

Horrela, bada, zaila izan arren, geure ahalmen mugatuak ontzat emanda, «lepoan hartu eta segi aurrera» besterik ez zaigu geratzen. •

A blue-toned photograph. On the left, a window with a white frame and multiple panes is partially covered by white, sheer curtains that are blowing in the wind. To the right of the window is a brick wall. Three small, square, dark-framed windows are set into the brick wall. The overall mood is serene and slightly melancholic due to the monochromatic blue color scheme.

GAUR8

ireki gure leihua

{ koadernoa } **Joana Garmendia**

Mariatxiak eta emerituak

Hizkuntzaren filosofian badira zenbait adibide klasiko: autoreak joan eta autoreak etorri, auzi jakin bat lantzeko aztertutako diren adibide beti-berdinak. Adibide klasiko horietako bat da, zalantzarik gabe, honako esaldia: «Frantziako erregea burusoila da». Batek baino gehiagok pentsatuko du, seguru asko, esaldi horrek zein auzi irudikatzen ote duen ba, edo zein arazo sortzen ote dion filosofoari: alegia, zer interes izan ote dezakeen lau hitz horiek aztertzeak. Izan ere, ez du esaldi aldrebesegia ematen, ez zaio korapilorik antzematen, ez da esaldi hori ulertzen zaila. Baina horixe da, hain zuzen, gakoa hemen: denok ulertzen dugu zer esan nahi duen esaldi horrek, nahiz eta ez dagoen Frantzian erregerik.

Oraindik ere ditxosozko esaldiari arazorik ikusten ez badiozue, esadazue: esaldiak dioena zer da, egia ala faltsua? Ez da galdera zailegia, baina ez da erraza erantzuten. Esaldi batek dioena egia ala faltsua den ebazteko, sistemarik erraz-zuzenena errealtateari begiratzea da. «Anoetako udaletxea laranja kolorekoa da»: esaldi hori egia edo faltsua den jakiteko, zoaz Anoetako plazara eta begiratu udaletxeari. «Frantziako erregea burusoila da» egia edo faltsua den argitzeko, beraz, jo beharko zenuke Frantziara, eta han begiratu. Frantzian, ordea, ez dago erregerik, ez melenadun ez burusoilik.

Agian esaldiak dioena ez da ez egia ez faltsua? Baina, ez, badirudi moduren batean intuizioak esaten digula esaldiak dioena faltsua dela: ez dago Frantziako erregerik eta, beraz, faltsua da Frantziako erregea burusoila dela. Pentsatzen dut konforme samar iritsiko zinetela denok honaino, eta prest zeundeketela, gehienok behintzat, honekin itxitzat emateko auzia. Baina, ene, filosofian gauza sinplerik balego. Urrats bat falta zaigu.

Gauza bat egia bada, horren kontrakoa faltsua da; nahiko tribiala dirudi horrek ere. Anoetako udaletxea laranja dela egia denez, Anoetako udaletxea ez dela laranja faltsua da. Edo, alderantziz: Anoetako udaletxea laranja dela faltsua balitz, Anoetako udaletxea ez dela laranja egia litzateke. Beraz, hori horrela izanik, eta onartutzat jo dugunez Frantziako erregea burusoila dela faltsua dela, badirudi onartu beharko genukeela Frantziako erregea ez dela burusoila egia dela. Baina ez dut uste inor hori onartzeko prest geundekeneik. Hor duzue auzia, ertz askotarikoa.

Batek baino gehiagok pentsatuko zenuten, altura hauetan, hizkuntzaren filosofoek makina bat denbora galdu dugula gureak ez diren erregeen kontuei buelta eta buelta. Gaurko koaderno osoa erregea go-ra eta erregea behera betetzea ere gehiegitxo izan

EiTBn hil denari «Britainia Handiko» deitzen diote sikiera. Haren hiletetara joan diren Juan Carlos eta Sofiari, ordea, «errege-erregina emerituak» deitu diete igandeko albistegian, nongoak diren esateko premiarik gabe

ez ote den. Ba ez ahal zenuten koitadu horiek EiTB piztuko egun hauetan. Mariatxiekin nahikoa ez, eta Britainia Handiko erreginaz aritu dira egunero, albistegiak hari buruzkoekin irekiz, tonu erabat monarkiko, zaharmindu eta hanpatuarekin.

Hil denari «Britainia Handiko» deitzen diote sikiera. Haren hiletetara joan diren Juan Carlos eta Sofiari, ordea, «errege-erregina emerituak» deitu diete igandeko albistegian, horrelaxe, nongoak diren esateko premiarik gabe.

Monarkikoak bakarrik ez, nongo monarkikoak diren ere nabari zaie aise. •

Kalitatezko osasungintza-
ren eta euska-
raren aldeko
ekintzaile ne-
kaezina da,
garbi baitu biak elkarri lotuta
daudela derrigorrean.

**Zer behar dugu, mediku ona
ala mediku euskalduna?**

Hori aspaldi atzean utzi ge-
nuen, eztabaidatik kanpo utzi
dugu jada. Beste esparru eta
arlo batzuk lantzen ari gara.
Kalitatea eta hizkuntza banae-
zinak dira, hori ez dago ezta-
baidatzerik. Baina egia da gi-
zarte honetan oraindik
indarrean daudela guztiz

iraungita egon beharko luke-
ten zenbait paradigma. Segun
zer eremutara zoazen, zera en-
tzun dezakezu: 'niri bost me-
dikua erdalduna edo euskal-
duna baldin bada, niri inporta
zaidana mediku ona izatea da'.
Baina gehienetan hori esaten
duenak nahiago du bere hiz-
kuntzan hitz egiten duen me-
dikua. Ez dut uste erdaldun
elebakar batek nahiago duenik
AEBetatik etorri den, oso-oso
ona den eta ingelesez hitz egi-
ten duen mediku prestatua.
Gehienek nahiago dute beren
hizkuntzan hitz egiten duen
medikua. Eta erdaldun eleba-
kar horiek seguru nago nahia-
go dutela bertako medikua.

Eta askotan, nahiz eta gaztele-
raz jakin, ez dute nahi medi-
kua beltza, emakumea eta bel-
tza edo hegoamerikarra izatea,
adibidez. Nahiago dute espai-
niarra izatea eta gaztelaraz ja-
katea.

**Hor igartzen da nondik gato-
zen. Duela ez hainbeste alka-
tea, apaiza eta herriko medi-
kua ziren herrian prestigioa
zutenak eta errespetatuak zi-
renak.**

Bai, eta oraindik igartzen da,
herriko medikuek badaukagu
gure itzala. Baina, kontrara,
XIX. mende hasieran Gipuzko-
ako herri txikietan herriko
medikua euskalduna izatea es-

*«Pertsona bat
pertsona bezala
artatu nahi baduzu,
bere testuinguru
guztia kontuan
hartu behar duzu.
Profesional gisa,
horri egokitu behar
diozu zure jarduna.
Eta hizkuntza
pertsona horren
parte banaezin gisa
hartu behar duzu»*

katzen zen, derrigorrez, herri-
tarrak euskaldun elebakarrak
zirelako. Itzal handia, botere
handia, baina esanguratsua da
nola gauden asimilatuta. Due-
la ehun eta berrogeita hamar
urte mediku euskaldunak es-
katzen genituen eta, orain, ez.

**Zer-nolako garrantzia dauka
osasun arreta zure hizkun-
tzan jasotzeak?**

Erabatekoa. Medikua eta
pazientearen artean harreman
bat sortzen da eta konfiantzaz-
koa izan behar du. Eta hizkun-
tzak hori erraztu egiten du.
Baina komunikatzeko errazta-
suna ere kontuan izan behar
da. Askotan zure minak, penak,



«Inork ez ditu bere hizkuntza eskubideak borrokatuko heriotza aurrez aurre daukanean. Inori ezin zaio hori eskatu»

barruko ondoezak, beldurrak azaltzeko hobeto moldatzen zara zure hizkuntzan. Ez da gaitasun kontua, baina bihotzetik edo erraietatik hitz egitean hobeto moldatzen zara zure hizkuntzan. Denok dakigu gazteleraz edo beste hizkuntza batzuetan nahiko ondo. Gai gara irakurtzeko, ikasteko... baina egoera batzuetan nahiago dugu euskaraz egin.

Eta bada beste kontu bat; identitatea ere badago jokoan. Hizkuntza ez da bakarrik komunikatzeko tresna bat. Hizkuntza pertsona da, norbana-koa eta komunitatea. Hizkuntzak egiten zaitu suediar, ingeles edo frantses, ez toki batean edo bestean jaio izanak. Pertsona bat pertsona bezala artatu nahi baduzu, bere testuinguru guztia kontuan hartu behar duzu. Ez da gauza bera emakume bat, gizon bat edo ez emakume ez gizon ez den pertsona bat artatzea. Ez da gauza bera haur bat edo adineko pertsona bat artatzea... goitik behera aldatzen da egoera. Hizkuntzarekin berdin gertatzen da. Ez da gauza bera euskalduna izatea edo erdalduna izatea. Profesional gisa, horri egokitu behar diozu zure jarduna. Hizkuntza pertsona horren parte gisa hartu behar duzu, parte banaezin gisa.

Mundu mailako adibideak badaude? Badaukagu nondik ikasi?

Eredu pila bat daude. Bitxia da duela gutxira arte hemen horren berri ez dugula jakin. Hor dago suediar gutxiengoa Finlandian edo Kanadako frankofonoak, aitzindariak direla esango nuke. Quebecen frankofonoak nagusi dira, baina Quebecetik kanpo milioi bat frantses hiztun bizi dira gutxiengoko egoeran. Toki asko-

tan biztanleriaren %10etik behera dira, euskaldunak Tafallan bezala adibidez. Baina, hala ere, oso ondo antolatuta daude, erakunde propioak dituzte. Badaude ospitaleak arreta goitik behera frantsesez jasotzeko modua eskaintzen dutenak; unibertsitatean medikuntza eta erizaintza frantsesez ikasteko modua dago eta badira ikerketa lerroak baidan hizkuntza eta bai gaia osasun arreta eta hizkuntza direnak. Oso aurreratuta daude eta hortik dator eskaintza aktiboaren eredua.

Beste adibide bat Gales da, gure oso antzekoa. Estaturik gabeko nazioa da, Erresuma Batuko autonomia estatutua daukate, gurea baino beranduagokoa. Baina gu baino askoz bizkorrago mugitu dira, osasun arreta galesez izan behar duen kontzientzia sakona daukatelako.

Eredu asko daude eta gaia-
ren inguruan asko ikertu da, AEBetan komunitate hispaniarrarekin adibidez. Gaia ikertu da eta asko argitaratu da horren inguruan, gehiena ingelesez eta frantsesez ere dezente, baina zoritxarrez hemen ez dago interesik edo ez gara enteratu.

Zer da eskaintza aktiboa?

Definizio desberdinak daude. Kanadako definizioari jarraituz, eskaintza aktiboa da osasun edo arreta soziosanitarioko zerbitzuen eskaintza erakundeek gainean jartzea. Hau da, ahuldade egoeran dagoen pazienteak ez behartu inondik inora arreta bere hizkuntzan eskatu behar izatera. Pertsona hori larri dago, ahuldade egoeran, minez, beldurrez... ez dezagun behartu egoera horretan bere hizkuntza eskubideen alde borrokatzera,

ez dauka horretarako ez bote-
rerik ez indarrik. Eskaintza aktiboak aurre hartzen dio egoera horri eta alde aurretik eskaini egiten du arreta hizkuntza desberdinetan eta ikusgarri jartzen du eskaintza hori. Informazioa zabaldu egiten du eta pazienteak adoretu.

Bi zutabe antzematen dira. Hizkuntza txiki eta zapaldu bateko herritarren kontzientzia indartu beharra, ahal- dundu beharra, batetik.

Erabateko kultura aldaketa eskatzen du horrek eta ez da egun batetik bestera gertatzen; egun batetik bestera ez da aldatzen gizarte oso bat, ezta Osakidetza edo Osasunbidea bezalako erakunde erraldoiak ere. Eragile desberdinen arteko elkarlana, prestakuntza prozesua, kontzientziazio lana, ikerketak... behar dira horretarako. Ez da erraza. Gu horregatik hasi ginen argitalpen txikiak, iritzi artikuluak, udako ikastaroak, graduondokoak... bultzatzen. Asmoa litzateke gure atzetik datozenek honen gaineko ikerketak bultzatzea, lantaldeak sortzea, ikerketa lerroak garatzea, doktorego tesiak... ezagutza corpus bat eratzea. Eta, aldi berean, ikerketa horiek kontzientziazioa, aktibazioa eta jendearen adoretzea ekar dezatela.

Bigarren zutabea: erakundeak. Ezin da herritarren bizkar utzi erakundeek betetzen ez duten zuloa.

Erantzukizun guztia beti erakundeena da. Adibidez, pazienteak ospitalera bihotzekoak jota baldin badator, ezin diogu ardura egotzi erretzailea delako edo ez delako zaindu. Jakina, bere osasunaren gaineko ardura badauka, baina behin

AITOR MONTES LASARTE

FAMILIA MEDIKUA

Eskaintza aktiboaren inguruko udako ikastaroa zuzendu berri du. Eskaintza aktiboa da, pazienteak eskatu beharrik gabe, osasungintzak euskara eskaintzea, kalitatezko zerbitzuaren ezinbesteko osagaia den neurrian.

Amagoia Mujika Telleria

erietxera etorri denean era-kundearen ardura da ahalik eta erosoan egotea, proba diagnostikoak ahalik azkarren egitea, ondo artatua sentitzea eta maila goreneko kalitatezko arreta eta zerbitzuak eskaintzea. Hizkuntzarekin berdin. Hori guztia egin behar da pazienteak kasik konturatu gabe euskara hutsean artatua izan dadin, bai ahozkoan eta bai idatzizkoan, normaltasunez eta naturaltasunez. Zoritxarrez, barneratuta daukagu normala dela euskaraz artatua ez izatea. Arreta soziosanitari-
ria gure bizitzaren parte garrantzitsua da, milaka eta milaka euskaldunen egunerokoaren parte da, eta normaltzat jotzen dugu gure hizkuntzan ez jasotzea.

Medikuarenera joaten zarenean egoera zaurgarrian egon ohi zara. Normala da pentsatzea ez dela hizkuntza eskubideez kezkatzen hasteko unea.

Larri zaude, estu, ikaratuta, askotan hiltzear edo hilko zarela pentsatuz... Nola epaitu edo zamatuko dugu pertsona hori? Inork ez ditu bere hizkuntza eskubideak borrokatuko heriotza aurrez aurre daukanean eta inori ezin zaio hori eskatu. Ardura beti profesionalena eta erakundeena izan behar da.

Eskaintza aktiboari begira, nola dago gure osasun sistema?

Guztiz ausazkoa dela esango nuke, zorte kontua. Ez dago inolako prestakuntzarik horren gainean, medikuntzako eta erizaintzako ikasketetan edo Osakidetza etengabeko prestakuntzan hizkuntzarena ez dago jasota. Adibide esanguratsua da aurrean onartu dela Osakidetza hirugarren eus-

kara plana eta ez dutela publiko egin. Osakidetza langileei ere ez zaigu jakinarazi hirugarren euskara plana argitaratu dela.

Beti uzten da profesionalen erantzukizunaren edo ardura-
ren gainean. Horrez gain, gaitzaren guztia itxurakeria da. Osakidetza zuzendaritza osoaren lan hizkuntza gazte-
ra da eta eroso daude horretan. Eskaintza aktiborik ez dago.

Duela egun batzuk komunikabideei mezu bat bidali zenien. Goiburua: Kokoteraino nago.

Kokoteraino nago ni eta langile guztiak. Badira urte batzuk gainbehera batean gaudela, maldan behera. Batetik, lan karga biderkatzen ari da, zaharkituta dagoen eta osasun behar handiak dituen gizarte batean bizi gara eta, bestetik, osasun sistema eraisten ari dira; gero eta profesional gutxiago daude. Lan karga gora

doan eta profesionalak ez gara iristen. Eta gainera, gure lan baldintzak okertzen ari dira, gero eta pobreagoak gara. Pandemia garaian eskerrak eman zizkiguten kanpaina publiko batean, baina dirurik ordaindu ez eta lan karga murriztu ez. Duela hamar urte baino gehiago lan egiten dut, %60 gehiago, baina pobreagoa naiz eta txarrera egingo dugu.

Pazienteen aldetik, gero eta zailagoa izango da osasun arreta jasotzea. Gainera, gero eta berekoiagoak gara eta giza-
zartea atomizatzen ari da. Esango nuke ez daukagula herrik, bakoitza berera dago.

Osasun publikoaren desagerpena aurreikusten duzu epe nahiko laburrean.

Asmo politiko garbia dago beste osasun eredu batzuk kopiatzeko; zoritxarrez, Ameriketako Estatu Batuetakoa eta, batez ere, Erresuma Batukoa. Erresuma Batuan osasun zer-

bitzu nazionala zuten, punta-
koa mundu osoan. Margaret Thatcher hasi zen hori eraisten eta gero eta okerrago daude, lan baldintza oso petralak eta zerbitzua gero eta eskasagoa. Etorkizuna izango da, hezkuntza bezala, osasun arreta zerbitzu pribatua ahal duenaren eskura eta gainontzekoentzat osasun zerbitzu publiko erdi eraitsia eta lehen arreta suntsitua.

Dagoneko ikusten ari gara Eusko Jaurlaritza sare publiko pribatuak bultzatzen ari dela, osasun arloko ikerketa enpresa pribatuak, ez guztion interesa zaintzen.

Badirudi gero eta zabaldago daudela aseguru pribatuak.

Pandemia baino lehenago EA-En aseguru pribatua zutenen batezbestekoa %28koa zen. Orain baliteke gehiago izatea pandemiaren ondorioz. Osasuna da guztion lehentasuna, denok bizi nahi dugu osasun-

«Duela hamar urte mediku euskalduna eskatzen genuen, orain ordezkari medikua eskatzen ari gara, laster osasun zentroan erizaina egotea eskatuko dugu eta geroago eskatuko dugu osasun etxea zabalik egotea»



Maialen ANDRES | FOKU



Unai
Gaztelumendi

iRRITZIA:

ireki gure leihoa



GAUR8

BORTZ KIROL

Pilotaren aberastasuna islatuko duen lehia prestatzen ari dira Donezteben

PILOTA / Asier Aiestaran

Abuztu amaieran iritsi zen deialdia. Doneztebeko Erreka Kirol Elkartek Bortz Kirol izeneko lehiaketa martxan ipintzeko asmoa agertu zuen. Garai batean Mezkititzen jokatzeko izen bereko txapelketa berreskuratu nahian, pilotako bost jokamolde desberdinetan ongien moldatzen den pilotaria sarituko luke lehiaketak, gizon nahiz emakume.

Aukeratutako pilota jokamoldeak hauexek dira: eskuz, paleta gomaz, xare, joko garbi eta laxo motza. Argi dago ez direla jokamolde ezagunenak, azken hirurak batez ere, baina antolatzaileek euskal pilotan pilota jotzeko dauden bost moduak bildu nahi zituzten lehiaketan, kirol honen aberastasuna nabarmendu eta ezezagunagoak diren jokamoldeei bultzada bat emateko helburuarekin.

«Alde batetik, Donezteben laxoan jokatzeko da, eskula-

rruekin-eta hor aritzen dira; eta bestetik, buruan genuen zer polita litzatekeen Mezkititzen egiten zen Bortz Kirol txapelketa hura berreskuratzea. Hortik hasi ginen apur bat tiraka. Mezkititzen bost kirol ziren baina egia da palak pisu handia zuela. Han palako hiru jokamolde jokatzeko ziren, xare eta eskuarekin batera. Hemengo pilotazale batzuekin hitz egiten atera zen ideia hori, pilota jotzeko bost moduak biltzearena, buruari tiraka. Ezagutzen genituen pilotari batzuk zirikatu genituen eta

Garai batean Meskititzen egiten zen pilota txapelketa berezia berreskuratzeko lanean ari da Doneztebeko Erreka Kirol Elkartea. Herri kirol munduan Pentatloiak hartu duen indarra ikusita, euskal pilotako bost jokamolde desberdin eta adierazgarritan ondoen moldatuko den kirolaria bilatu nahi dute.

Ezkerrean, pilotari bat aurtengo joko garbi partida batean pilota xisterarekin jotzen. Eskuinean, pilotaria eskularrua jantzita aspaldiko laxoko neurketa batean. Guillaume FAUVEAU - Jagoba MANTEROLA | FOKU


denei ideia ona iruditu zitzaien. Hortik hasi gara eta horretan gabiltza», azaldu digu Gorka Bidegain Erreka Kirol Elkarteko kideak.

PENTATLOIAREN IBILBIDEA

Antolatzaileek badakite lehen urratsak ez direla samurrak izango horrelako txapelketa batean, baina uste dute apurka-apurka ikusgarritasuna irabazten joan daitekeela, eta azkenaldian horrenbesteko indarra hartu duen Euskal Pentatloia aipatzen dute. «Beste inspirazio puntua izan zen

herri kirolean pentatloiarekin gertatu dena ikustea. Gure artean asko hitz egiten genuen horretaz. Nola hasieran kirolari askoren maila ez zen oso ona, aizkoran ongi ibiltzen zena adibidez oso ongi ibiltzen zen baina beste kirol batzuetan asko sufritzen zuen eta alderantziz. Baina urteekin mailak gora egin du eta asko parekatu da. Horren inguruan solasean hasi ginen eta poliki-poliki ari gara forma ematen. Asmoa da aurten martxan jarri eta epe ertain-luze batera maila hobetzea. Kontziente gara aurten partida batzuk ez direla oso ikusgarriak izango erreminta zehatz batzuetan, desberdintasun handiak izan daitezkeelako adibidez joko garbia maneiatzen duen pilotari baten eta oraintxe hasi den beste baten artean, baina poliki ea egonkortzen garen eta lortzen dugun gauza berri eta polit bat martxan jartzea», dio Bidegainek.

Antolatzaileen asmoen artean dago, era berean, jokamolde batean ederki jokatzeko du-



ten pilotariak beste batzuk probatzera gonbidatzea. Edo urratsa egin dezaten apur bat zirikatzea behintzat. Eta baita zaleen artean beste modalitate batzuekiko interes piztea ere. «Askotan izaten dugun hausnarketa da jende asko dagoela nahiz eta oso pilotazalea izan oso jokamolde gutxi ezagutzen dituen. Eskua eta pala dira agian ezagunenak, baina gero agian erremonteko eta zestako xisterak ez ditu desberdintzen. Txapelketa honen bidez hori ere konpondu nahiko genuke apur bat. Kontuan hartu behar da Doneztebe geografikoki leku estrategikoan dagoela. Gipuzkoan errebotera jokatzen duten herri horietatik nahiko hurbil dago, joko garbia eta eskularrua dominatzen duen jendea dago bertan; Iruran ere xarean jokatzen duen jende asko dago; Iparralde ere oso hurbil daukagu: Baigorri, Sara... Segur aski gaur egun bost jokamoldeak dominatzen dituen pilotaririk ez da izango, baina hau izan daiteke modu bat jokamolde berriak probatzeko, edo erronka polit bat pilota apur bat utzita daukaten pertsonak berriz ere hastera animatzeko».

TREBATZE SAIOAK

Eta txapelketak proposatzen duen beste berrikuntza kurio-soa da hasi aurretik epe bat jarri dutela jokamolde bat ezagutzen ez dutenek edo zailtasunak dituztenek entrenamendu batzuk egin eta apur bat trebatu ahal izateko. Hasieran hiruzpalau pilotarik eman zuten baiezkoa, eta azkenean ia hamar pilotariko taldetxo batekin ari dira lanean.

«Egia da denek badutela hutsuneren bat eta horregatik nahi ditugu pilotariak lagun-
du. Kontziente gara joko garbi-



ko xistera bat edo laxoko esku-larru bat garestia dela, eta txapelketa hau ez dela pilotari baten helburu nagusia izango. Jada eskuratu ditugu erreminta horiek eta iraila utzi nahi genuen interesa erakusten duten pilotari horiek dominatzen ez dituzten erreminta horiekin probatzeko. Uste dugu oso zaila izango dela bost jokamoldeak dominatuko dituen pilotariren bat egotea, agian egongo da baten bat. Horren bila ari gara azken batean», aipatu digu berrikuntza horretaz Gorka Bidegainek.

Azkenean, Ipar Euskal Herriko pilotari batzuk ere animatu dira eta denen artean txapelketari forma eman nahian dabiltza, urri amaieran-edo lehiari ekiteko. «Iparraldeko pilotari batzuek interesa agertu dute eta hasiera apur bat atzeratzea erabaki genuen, gauzak ongi prestatu ahal izateko. Ia hamar pilotariko taldetxo bat daukagu eta aurre-

Xarea izango da Bortz Kirol txapelketan jokatuko den jokamoldeetako bat. Irudian Eneko De Paredes agertzen da, abuztuaren Hazparneko trinketearen egindako entrenamendu batean. Guillaume FAUVEAU

neko entrenamenduak egin ditugu jada. Eta Iparraldekoekin harremanetan gaude ea haiek noiz etorri ahal diren ikusi eta guztiak batera entrenamendu bat egiteko eta zer pilota erabiliko ditugun erabakitzeke».


Helburua ahalik eta txapelketa orekatuena atontzea da: «Noski, joko garbiko pilota batekin jokatzen badugu horretan dabilenak aise menderatuko ditu besteak, eta oreka hori bilatu nahi dugu. Eta arautegiarekin berdin. Adibidez, sakearekin batzuk min anitz egiten dute, erreminta erabiltzen ikasi dutelako, eta aipatzen zen sakea tantoa galdu duenari emateko aukera. Oreka horren bila arautegia moldatzen ari gara pilotariekin. Denak eroso sentituko diren arautegi baten bila gabiltza. Adibidez, badago bat manista ona izana eta tokeko pilota batekin jokatzen badugu, bada, igual palistek esango lukete ez zirela ausartzen, hipotetikoki ari naiz.

Pilotarien aldetik jarrera ona aurkitu dugu eta denak prest daude oreka hori bilatzen saiatzeko».

MEZKIRITZEKO OROITZAPENAK

Borondatea badago, eta lane-rako gogoia ere bai. Hala ere, bistan da helburua ez dela lortzen erraza izango, eta Mezkitritzen Bortz Kirol txapelketa egiteari utzi izana horren adibide argia da. Horren jakitun dira Donezteben, baina uste dute gaur egun baliabide gehixeago daudela horrelako lehiaketa bat jendartean ikusarazteko.

«Mezkitritzen egiten zuten Bost Kirol bat, non ezkerparetako frontoi motzean jokatzen ziren bost jokamoldeak –paleta, paleta larruz, eskua, xarea eta joko garbia– biltzen ziren. Urte anitzetan jokatu zen. Nik ez nuen ikusi, baina garai bateko egunkarietan kronikak sartzen zituzten eta horren bidez ezagutu nuen ni txikia



nintzenean. Hasieran bazuten pilotari kuadrilla bat, baina gero pilotari asko lehiaketa uzten joan ziren. Joko garbia adibidez kendu egin behar izan zuten pilotari askok ez zutelako erreminta dominatzen. Horren ordez beste pala modalitate bat sartu zuten, eta palak pisu handia hartu zuen, pala motza, paleta larruz eta paleta gomaz jokatzen zirelako. Orduan gertatu zena zen palista onak etortzen zirela eta beste bi jokamoldeetan galdu arren abantaila izaten zutela txapelketa irabazteko. Ez dakit horregatik izango zen edo ez, baina apurka-apurka indarra galtzen joan zen eta badakit azken urteetan (2002, 2003...) taldeka egiten zutela, klubaren artean. Klub bakoitzak pilotari bat hautatzen zuen jokamolde bakoitzerako, eta horrela beste urte pare bat iraungo zuen. Guk uste dugu garaia desberdinak direla eta gaur egun horrelako txapelketa bati erraza-

go eman ahal zaiola ikusgarritasuna sare sozialak erabiliz. Horregatik animatu gara eta ea zer ateratzen zaigun».

JOKAMOLDEAK BULTZATU

Izan ere, jokamolde batzuen osasun egoera nahiko larria da, eta leku oso jakinetan bakarrik jokatzen dira. «Joko garbi, nik dakidala, apenas jokatzen den Nafarroan. Badakit orain 40-50 bat urte Iruritan eta errebotean jokatzen zutela, gaur egun adinduak diren pertsonak badira orduan joko garbian jokatzen zutenak. Badakit

«Segur aski gaur egun bost jokamoldeak dominatzen dituen pilotaririk ez da izango, baina hau izan daiteke modu bat jokamolde berriak probatzeko», dio Gorka Bidegainek

Helburua ahalik eta txapelketa orekatuena antolatzea da, eta horretarako materiala eta araudia izan daitezke gakoak. Aukera desberdinak aztertzen ari dira asteotan

Esku pilota da agian egungo jokamolde ezagunena: ezkerreko irudian aurtengo Nafarroako Herriarteko Txapelketaren finalean ateratako argazkia ikus daiteke. Eskuinean, Amaia Etchelecou gomazko paletarekin pilota astintzen. Iñigo URIZ - Bob EDME

Gipuzkoako Federazioak badi-tuela joko garbiko lehiaketak ezkerparetan, baina Nafarroan apenas. Eta laxoan txapelketa bat jokatzen da luzera, bost herrik parte hartzen dute, eta aurrez aurre ezkerparetan hau izango da aurreneko txapelketa. Nik uste ez dela inoiz jokatutik ofizialki, nahiz eta guk gure artean jokatzen dugun noizean behin. Azkenean eskularrua sartu dugu ikusten genuelako erremontea zailagoa dela. Eskularrua inoiz hartu ez duen batek, pilotaria baldin bada, lau zapabost saiotan harrrapatzen ahal du zerbait. Erremontea zailagoa ikusten genuen eta horregatik sartu dugu eskularru motza», adierazi du Bidegainek.

«Oso jokamolde politak dira jokatzeak, behin apur bat harrrapatzen diozunean. Joko horiek berreskuratzeko modu bat izan ahal da eta esku pilotak duen aniztasun eta aberastasun hori Hegoaldean ere apur

bat ezagutarazteko», gehitu du.

Ez baita kasualitatea horrelako txapelketa bat Malerreka inguruan antolatu izana. Gorka Bidegainek onartu digunez pilota osasuntsu dago bailaran eta zorionez oraindik gaztetxo asko dira euren atea jotzen dutenak pilotan lehen pausoak emateko.

«Hemen, Doneztebeko Erreka Elkartean, pilotan ume asko ibiltzen dira, bailara osokoak. Esku da batez ere egiten dena, baina erremonte eskola ere badago eta gaztetxo batzuk ibiltzen dira. Donezteben bertan herri mailan agian badira beste kirol batzuk indar gehiago dutenak, futbola edo eskubaloia adibidez, baina bailara mailan, Malerreka Bertizarana mailan, pilotak oraindik badu pisu anitz eta herri txiki horietako ume asko etortzen dira Doneztebera pilotan jokatze- ra», eskertu du Erreka Kirol Elkarteko kideak.

**Arantza Irastorza Goñi**

UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Ehuleak ere programatzaile

Konputagailuak eta programazio lengoaiak zer ziren susmatu ere egin aurretik, artisau ehuleak beren egurrezko ehungailuekin kodetzen ari

ziren. Oihalak egiteko, luzean eta zabalean jarritako hariak gurutzatu behar dira: ehungailuan irazki hariak luzetara tinko jartzen dira, eta beraien tartetik bilbe deituriko hariak alde batera eta gero bestera pasatzen dira. Hagaxka batzuei eraginez, irazki hariak gora eta behera mugituko dira, eta horren arabera patroio edo diseinu desberdinak sortuko dira. Jacquard abizeneko ehulea izan zen ehungintzan iraultza eragin zuena ehungailuari txartel zulatuak gehitu zizkionean. Txartelak katean loturik, ordenan beren zuloek hagaxkak altxatzea edo jaistea eragiten zuten. Babbage matematikariak txartel zulatuaren ideia bere kalkulagailu analitikoaren programatzeko bidea izan zitekeela ikusi zuen.

Lehen konputagailuak eraiki zirenetik, etengabeko erronka izan da konputagailuei aginduak modu egokian ematea, konputagailuek ulertuko zituzten lengoaiak asmatzea.

Helburu orokorreko lengoaiak sortu izan dira, esaterako, Java edo Python, eta baita domeinu bereziko lengoaiak ere. Lehenengoek edozein problema ebazteko balio dezakete; aldiz, bigarren taldekoek helburu zehatza eta esparru oso mugatua dute. Hauen adibideak, esaterako, DOT, grafoak definitzeko eta Gawk, testua prozesatzeko lengoaiak. Lengoaia diseinatzerakoan, bere programak testualak izango direla ezarri daiteke, edo era grafikoan adieraziko direla: erabakia lengoaia erabiliko duten programatzaileen trebetasunean pentsatuz hartuko da. Hasierarekin lotuz, ehungin-

tzan ere domeinu bereziko lengoaiak erabiltzen dira, eta kasu horretan lengoaia horiekin programatuko dutenak artisau ehuleak izango dira.

Jacquarden ehungailu haietatik bilakaera izan da noski, eta gaur egun ehungailu digitalak daude, programatu behar direnak ere.

Oihalak egin nahi dituen ehuleak lehenik sortu nahi dituen irudiak eta tramak diseinatu beharko ditu; eta jarraian, diseinu hori eraldatu egin beharko da, ehungailuari formatu egokian pasatzeko eta oihalaren sorrerarekin hasteko, behar diren harien gurutzatze egokiarekin aurrera egin dezan, diseinuan adierazitakoari jarraituz. Diseinuak egiteko badaude hainbat software programa, esaterako, Handweaving eta Weaveit. Hauek

domeinu bereziko lengoaia erabiltzen dute, modu grafikoan eskaintzen duten horietakoa, eta horrela, ehulea aplikazioaren interfazea erabiliz oihalaren trama erabakitzen joango da, harien koloreak eta lodierak, zenbat irazki eta bilbe hari, beraien arteko gurutzatzeak zein ordenatan, patroien erreplikak, etab.

Azken batean, aplikazioaren interfazean erabiltzen diren elementuak eta erabakiak ehuleak ehungailuaren aurrean maneiatuko lituzkeen berdinak dira.

Ehulearen hiztegi bera erabiltzen da domeinu bereziko lengoian, era grafikoan lana ahalik eta gehien errazteko. Hori baita lengoaia hauen gakoa, hain zuzen, edozein pertsona programatzen jartzea, berak ulertzen duen hiztegia erabiliz. •




Artisau ehuleek kodetu egiten dute etengabe.

ANANALINE | GETTY IMAGES

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



EGILE EZEZAGUNA. BILDUMA PARTIKULARRA.

EAMON DE VALERA, ZARAUZKO EUSKAL JAIETAN

1953ko irailaren 9an, Zarautzen Euskal Jaia ospatu zen. Egun hori Gipuzkoa osoan ospatzen zen Arantzazuko Ama Birjina zela-eta. Prentsa frankistak Zarauzko jaiaren berri eman zuen: erromeriaz eta beste jai ekitaldi batzuez gain -txistularien alardeak, adibidez-, goiz eta arratsaldez frantziskotarren elizan egindako mezak azpimarratzen zituen, baita 15.30ean Arantzazuko Ama Birjinarekin egindako prozesioa ere. Artikulua ilustratzen duen argazkian fraide frantziskotar batzuk ikusten dira prozesioaren une batean, eta ikusle gisa Eamon de Valera ageri da lehen planoan. Garai hartan 71 urte zituen eta Irlandako lehen ministroa zen; urte batzuk geroago, 1959an, presidente izendatu zuten eta 1973. urtera arte bete zuen kargu hori.



EUSKAL HERRIKO GIDA ONLINE

IBILBIDEAK > MERKATARITZA
OSTALARITZA > TOKIKO TURISMOA...

ehgida.naiz.eus

